

PRESTAKUNTZA-IBILBIDEA -EREDUA-

OSASUN MENTALEKO ERIZAINZAKO IUM

TUTOREAK:

Isabel Alonso Durana
M^a Teresa Cañas García
Maitane Ortiz Echezarraga
Iasone Iñiguez de Heredia Marañón
Eva Izquierdo García
Nora Ruiz Bajo
Ainhoa Serrano Zurbitu
Lidia Grima Ruiz De Angulo
Beatriz Aguado Roldan

2026ko otsaila

OSASUN MENTALEKO ERIZAINZAKO ESPEZIALITATEKO PRESTAKUNTZA-IBILBIDE EREDUA

HITZAURREA

Dokumentu honetan jasotzen da osasun mentaleko Erizaintzako Prestakuntza Sanitario Espezializaturako (BAEE) prestakuntza-ibilbide eredua, Arabako Osasun Mentaleko Irakaskuntza Unitate Multiprofesionalean, **zeinak bi urteko iraupena duen**. Dokumentu honek orientatzeko asmoa du eta berau hau prestatzeko espezialitatearen Batzorde Nazionalak emandako gomendio orokorrak hartu dira oinarritzat. Dokumentuan protokolo moduan azaltzen dira prestakuntzan ari diren espezialistek Irakaskuntza Unitatean emandako espezializazioan zehar izango dituzten helburuak, edukiak eta egin beharko dituzten errotazioak. Prestakuntza-ibilbidearen eredu hori egokitu egin behar da prestakuntzan dagoen erizain espezialista bakoitzaren urteko prestakuntza-ibilbidea itxuratzeko, eta horren arduraren prestatzen ari den espezialistak berak eta haren tutoreak izango dute nagusiki, betiere Irakaskuntza Batzordeak emandako gomendioei jarraituz.

PRESTAKUNTZAREN XEDEA ETA HELBURUAK

Arabako Osasun Mentaleko Irakaskuntza Unitate Multiprofesionalaren xedea da prestakuntza sakon eta kalitatezkoa ematea. Hala, helburua da prestakuntza bertan amaitzen duten egoiliarren osasun mentalean espezializatutako erizain onak izatea, jarrera zientifiko arduratsua izatea eta gaitasuna izatea une bakoitzean zientziaren garapenerako egokiak diren baliabide kliniko eta teknologikoak erabiltzeko. Horrez gain, xedea da egoiliarren gai izatea osasun mentalean espezializatutako arreta emateko erizaintza-zainketak hainbat arreta-mailatan emanez (sustapena, prebentzioa, tratamendua eta errehabilitazioa osasun mentalean) eta jarduketa-eremu guztietan (asistentziala, irakaskuntzako, kudeaketako eta ikerketako), eta osasun mentaleko asalduren agerpenean zerikusia duten faktore estrintsekoak ere kontuan hartuz.

Helburu orokorra

Osasun mentalean espezialistak diren eta gizabanakoei, familiei eta taldeei osasun mentaleko arreta-maila guztietan zainketak ematen zaizkiela bermatuko duten erizainak prestatzea, eta, hala, gaitasuna izatea, arreta espezializatua emateko ez ezik, baita dagokien jarduera-eremuan prestakuntza emateko, ikertzeko, kudeatzeko eta erantzukizunak beren gain hartzeko. Helburuek, horrenbestez, norabide hori dute.

Helburu zehatzak

Asistentzialak:

- Harreman terapeutikoa oinarrizko komunikazio- eta harreman-baliabide gisa baliatzea, osasun mentaleko erizaintzako zainketen eta printzipio etikoen esparruan.
- Iritzi profesionalak ematea eta, horretarako, ezagutzak, informazioaren analisia eta pentsamendu kritikoa erabiliz.
- Gizabanako, familia eta taldeentzako osasun mentaleko erizaintza-zainketak baloratzea, diagnostikatzea, planifikatzea, burutzea eta ebaluatzea, arreta osoaren kontzeptuarekin bat etorritik, bizi-ziklo osoan osasun mentalaren sustapen, prebentzio, tratamendu eta errehabilitazioaren esparruan, eta betiere kalitatearen eta pazientearen segurtasunaren irizpideak kontuan hartuta.
- Gizabanako, familien eta taldeen osasun mentalaren arretarako plan integrala sortzeko zereginetan parte hartzea, osasun mentaleko taldeari zainketa-plan espezifikokoak emanaz.
- Arretaren jarraitutasuna koordinatzea eta bideratzea maila asistentzial guztien artean, erizaintzako zainketen jarraitutasunaren txostena eginda.
- Osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko gida klinikoak sortzea, ebidentzia zientifikoetan oinarrituak, eta horiek aplikatzea eta ebaluatzea, eta beste profesional batzuekin lankidetzan aritzea osasun mentaleko gida klinikoak sortzeko lanean.
- Osasun mentalaren esparruan erizaintzako zainketekin lotutako farmakoak eta bestelako osasun-produktuak maneiatzea, eta horiek agintzea, indarrean dagoen legediari jarraikiz.
- Komunitatean osasun mentaleko erizaintzako zainketari buruzko planak programatzea eta garatzea, eta etxez etxeko bisitak egitea.
- Erizaintzako zainketak koordinatzea, osasun mentaleko arreta-baliabidea eta -maila edozein dela ere, beste profesional batzuen esku-hartzeak ikuskatuta, baita esku-hartze

horiek zer neurritan egokitzen diren ere paziente eta egoera bakoitzerako ezarritako osasun mentaleko zainketen plangintzara.

- Zainketa-jarraitutasuna eskatzen duten osasun mentaleko arazoetan (adibidez, nahasmendu mental larrietan) kasuen kudeatzaile gisa jardutea, osasun mentaleko taldeak adostu duen estrategia baliatuta.
- Aritu gisa, aholku ematea erizaintzako profesionaleri eta beste osasun langile batzuei, pertsoneri edo taldeei.

Irakaskuntzakoak:

- Gizabanakoak, familiak, taldeak eta komunitateak hezteko osasun mentalari dagokionez.
- Etorkizunean erizaintzako profesionalak eta espezialistak izango direnei osasun mentaleko prestakuntza ematea eta beste profesional batzuen prestakuntzan parte hartzea.

Ikerketakoak:

- Osasun mentalaren esparruan ezagutza zientifikoa sortzea eta ebidentzia zabaltzea.
- Ikerketa-taldeko kide gisa, diziplina anitzeko ikerketa-proiektuetan parte hartzea edo horien buru izatea.

Kudeaketakoak:

- Osasun mentaleko zerbitzuak antolatzeko eta administratzeko zereginean laguntzea.
- Osasun mentalaren esparruko helburuak eta estrategiak zehazteko zereginean parte hartzea, betiere herrialdearen politika sanitario eta sozialaren lerro orokorren ildotik.
- Gizabanako, familia eta taldeentzako osasun mentaleko erizaintzako zainketak baloratzeko, diagnostikatzeko, planifikatzeko, burutzeko eta ebaluatzeko eskura dauden baliabideak kudeatzea, arreta integralaren kontzeptuarekin bat etorriz, bizi-ziklo osoan osasun mentalaren sustapen, prebentzio, tratamendu eta errehabilitazioaren esparruan.

Kalitatezko prestakuntza espezializatu bat garatzeko, beharrezko euskarri material eta teknikoak, giza baliabideak eta laguntza emango dira, eta lehentasuna emango zaie tutoreak lagundutako eta esperientzian, gogoetan eta praktika asistentzian oinarritutako ikaskuntza autonomoari lehentasuna ematen dioten irakaskuntza-metodologiei.

IRAKASKUNTZA-UNITATEKO BALIABIDEAK

Arabako Osasun Mentaleko Irakaskuntza Unitate Multiprofesionalak honako hauen baliabideak ditu: Arabako ESla (Arabako Unibertsitate Ospitalearen Santiago egoitza) eta Arabako Osasun Mentaleko Sarea.

Egitura asistentzialak

ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA, SANTIAGO EGOITZA

Akutuen Ospitalizazio Unitatea: Helduak; haurrak eta gazteak

Akutuen ospitalizazio-unitateak Arabako ESlaren parte dira eta Arabako Unibertsitate Ospitalean daude, Santiago egoitzan (helduena, 7. B solairuan, eta haur eta gazteena, 7. A solairuan); Arabako biztanle guztiak artatzen ditu, hau da, 350.000 biztanle inguru. Denera, 32 ohe daude helduentzat, 6 ohe haur eta gazteen egonaldi laburreko ospitalizazioan eta 6 ohe Ospitalizazio Partzialeko Unitatean (OPU).

Probintzia osoko psikiatria-larrialdiak artatzeko zerbitzua ospitale horretan dago zentralizatuta.

Akutuen Unitateak ospitaleko sail arteko kontsultak ere eskaintzen du, unibertsitate-ospitaleko zerbitzu eta unitateen eskariz. Era berean, ospitalizazio partzialeko unitatea, elikadura-programa intentsiboa —Elikadura-Portaeraren Nahasmendua artatzeko unitateak osatzen duena— eta jantoki terapeutikoa daude.

ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREA (AOMS)

Arabako Ospitale Psikiatrikoa (AOP)

Egonaldi ertaineko unitateak

Egonaldi ertaineko unitateak Arabako Ospitale Psikiatrikoan daude (AOP). Ospitalizazio psikiatrikoko unitateak dira, non helburu nagusia psikopatologia larria edo eboluzio okerrago bat duten pertsonak tratatzea den, koadro klinikoa arintzeko aste edo hilabete batzuetako egonaldia behar dutenak. Bertan, **errehabilitazio-programak** egiten dira, eta asmoa da ohiko bizimodura lehenbailehen itzul daitezen.

- Azpiakutuen Eremua (ASA) (gazteak eta helduak)

Egonaldi ertaineko ospitalizazio psikiatrikoko unitateak dira, eta Arabako Ospitale Psikiatrikoan daude. Helburu nagusia da psikopatologia larri bat edo eboluzio okerrago bat duten pertsonak tratatzea koadro klinikoa arintzeko egonaldi luzeago bat behar dutenean,

ohiko bizitzara itzul daitezzen. Halako unitateetan, ospitalizazioak hilabete eta hiru hilabete artean iraun ohi du.

- Errehabilitazio Intentsiboko Eremua: Psikosi Errefraktarioen Unitatea (PEU)

Unitatea Arabako Ospitale Psikiatrikoan dago. Unitate horien helburu nagusia da psikopatologia larri bat edo eboluzio okerragoa duten pertsonen errehabilitazio intentsiboko tratamendua ematea koadro klinikoa arintzeko egonaldi luzeagoa behar dutenean, eta, halako pazienteak ohiko bizitzara itzul daitezzen, errehabilitazio-programak egiten dira bertan. Unitate horietan, ospitalizazioak sei eta bederatzi hilabete artean iraun ohi du.

Egonaldi Luzeko Errehabilitazio Unitateak

Arabako Ospitale Psikiatrikoak heldu eta nagusientzako **errehabilitazio psikiatrikoko unitateak** ditu, berriaz errehabilitazio-prozesurako, eta zenbait hilabetetako egonaldietarako prestatuak.

- Errehabilitazio Funtzionaleko Eremua (ARF): ARF-1 eta ARF-2A

Egonaldi luzeagoko ospitalizazioko errehabilitazio psikiatrikoko unitateak dira, eta Arabako Ospitale Psikiatrikoan dago. Epe luzeagoko ospitalizazioa eta tratamendua behar duten helduentzako errehabilitazio-unitateak dira, eta errehabilitazio-prozesuan lan egiten dute berriaz; gehienez 2 urteko egonaldia aurreikusten da.

Unitate horietan honako hauek egiten eta baliatzen dira, besteak beste: errehabilitazio aktiboko programak, ebaluazio-sistemak, psikoheziketa eta heziketa sanitarioko jarduerak, eta errehabilitazio kognitibokoa.

Prozesu asistentziala ospitalez kanpoko beste baliabide komunitarioekin eta osasun mentaleko zentroekin dago integratuta, arretaren jarraitutasuna ziurtatzeko helburuarekin.

Bitarteko baliabideak, ospitalizazioaren ordezkioak

Jarraipen intentsiboa, errehabilitazioa eta komunitateko babesa bermatzeko baliabideak dira, eta nagusiki nahasmendu mental larria duten pertsonentzat daude pentsatuta. Zenbait zentro, talde eta programaz osatuta daude, eta erraz eta modu iraunkorrean erabiltzeko baliabideak, esku-hartzeak eta jarduerak eskaintzen dituzte paziente eta familientzat. Halaber, ondo komunikatuta daude osasun mentalean espezializatutako gainerako taldeekin. Honako hauek dira: **Eguneko Ospitale Psikiatrikoa eta Psikiatria Komunitarioko Zentroa (PKZ)**. Azken horrek Tratamendu Asertibo-Komunitarioko taldeak eta egoera berezietan dauden biztanleen kolektibo eta taldeentzako programa bereziak ditu.

Haur eta gazteen Osasun Mentaleko Unitatea (HGOMU)

AOMSek ospitalez kanpoko unitate bat da, eta Arabako 18 urtetik beherako haur eta gazteak artatzen ditu. Haur eta Gazteen osasun mentaleko unitatea (kontsultak, haurren eguneko ospitalea eta nerabeen eguneko ospitalea barne) eta Hezkuntza Unitate Terapeutikoa hartzen ditu. Azken horretan Hezkuntza Sailarekin egiten da lan.

Osasun mentaleko zentro komunitarioak (OMZ)

Arabako Osasun Mentaleko Sareak osasun mentaleko 2 zentro komunitario ditu Gasteizen eta beste bat Aiara-Laudion. Horietan, ospitalez kanpoko zerbitzua ematen zaie horren beharra duten probintziako biztanle guztiei. Bestalde, AOMSek osasun mentaleko zentro bat du Arabako espetxean nahasmendu mentala izanik espetxeratuta dauden pertsonak artatzeko.

Mendekotasunen Orientazio eta Tratamendu Zentroa (MOTZ)

Mendekotasunen alorreko orientaziorako eta tratamendurako zentro monografikoa da, eta ospitalez kanpoko arretaren parte da. Honako hauek ditu: harrera-kontsultak, drogarik gabeko programak, metadona-tratamendua, eguneko ospitalea eta gazteen eguneko ospitalea.

Baliabide fisiko eta materialak

Irakaskuntza Unitatea Arabako ESlak eta Arabako Osasun Mentaleko Sareak osatzen dute; beraz, zentro horietako baliabide orokor eta material guztiak ditu eskura.

Bestalde, akreditatutako zerbitzuen egoerari buruzko informazio eguneratua dauka Irakaskuntza Batzordeak, zerbitzu horiek prestakuntzan dagoen espezialistaren prestakuntza-programaren barnean egokiak ote diren egiaztatzeko eta duten irakaskuntza-aplikazioa optimizatzeko.

Etengabeko prestakuntzarako ikasgelak Arabako ESIan (AUO) eta Arabako Osasun Mentaleko Sarean:

- a. Areto nagusia, funtzio anitzeko bi gelatan banatu daitekeena.
- b. Ekitaldi-aretoa.
- c. Informatika-gelak.
- d. Zerbitzuko saioen gelak.
- e. Ingeleseko gela.
- f. Irakaskuntza-gelak.

Arabako ESiko eta Arabako Osasun Mentaleko Sareko liburutegiak:

- a. Liburutegi Batzordea, zeinak BAME eta BAEE sistemari buruzko eduki espezifikoaren inguruko ardura duen. Irekita dago, goizez eta arratsaldean.
- b. Liburutegi espezifikoak zerbitzu asistentzial bakoitzean.
- c. Hemeroteka, sare bibliografiko nagusietarako konexioa eta Osakidetzako Sarearen gainerako liburutegiekin ituna duena.
- d. Zentroetako ordenagailu guztietatik konektatzeko gaitasuna eta etxeko sarbidea.

BIOARABA Ikerketa Unitatea

Irudi-zerbitzua:

- a. Proiektzio digitaleko sistema eramangarriak edo finkoak gela guztietan.
- b. Irudien erregistro digitala.
- c. Irudi analogiko edo digitalak prozesatzeko euskarri teknikoa (aurkezpenetarako, hitzaldietarako, argitalpenetarako, posterretarako eta abarretarako ikonografia).

Hizkuntzen laborategia:

- a. Bereziki AUOko langile guztientzat irekia. 10 postu ditu berariaz ingelesa ikasteko.
- b. Arratsaldeko ordutegia, aurrez aurreko irakasleekin, etxetik konektatzeko gaitasunarekin eta elkarrizketa-taldeekin.
- c. Prestakuntzan ari diren espezialistek ikasteko planteatuta dago berariaz. Egokitzapen pertsonalizatua 10 ezagutza-mailarekin.

PRESTAKUNTZA PROGRAMAREN GARAPENA

Urteko lanaldia: Osakidetzak onartutakoa dagokion urterako.

Prestakuntzaren 1. urtea

Espezialitatearen prestakuntza-jarduera espezifikoak

- Hasierako murgilketa, maiatzean eta ekainean.
- Mintegiak urte osoan, hamabostean behin, bi asteazkenetik behin.
- Bilera klinikoak eta bibliografikoak urte osoan, hamabostean behin, bi asteazkenetik behin.

Zeharkako plan komunekoko prestakuntza-jarduerak, Arabako ESIko gainerako egoiliarrekin.

- Bilaketa bibliografikoari eta irakurketa kritikoari buruzko lantegiak.
- Osasunaren eta osasun mentalaren alorreko legedia.
- Bioetika.
- Babes erradiologikoa (ospitaleko gainerako egoiliarrekin batera).
- BBS (ospitaleko gainerako egoiliarrekin batera).

Prestakuntza unitate asistentzialetan

Modu indibidualizatuan ezarriak. Ospitalizazio-unitateetan goizeko eta arratsaldeko txandak egingo dira.

Prestakuntzaren 2. urtea

Espezialitatearen prestakuntza-jarduera espezifikoak

- 2. urtean, BAAE bakoitzak osasun mentaleko erizaintzari buruzko mintegi bat prestatu behar du 1. urteko egoiliarrentzat (E1) kasu praktikoen bidez azaldua, eta gaian aditua den erizain batek ikuskatuko du mintegi hori.
- Bigarren urte osoan zehar, honako jarduerak hauek egingo dira:
 - Ikerketaren metodologia. Lan zientifikoaren dibulgazioa.
 - Ikerketa-proiektua egiteko tutoretzak.
 - Saio kliniko bibliografikoak.
- Zeharkako plan komunekoa prestakuntza-jarduerak, Arabako ESiko gainerako egoiliarrekin.
 - Antolamendu, baliabide eta legedi soziala/soziosanitarioa.
 - Lidergoa eta zerbitzuen koordinazioa eta administrazioa.
 - Kudeaketa sanitarioa. Kalitate eta segurtasun klinikoa.
 - Gai horiek prestakuntza-bileretan programatuta daude eta, horretaz gain, E1, E2 eta tutoreek elkarren arteko kasu klinikoen bitartez finkatzen dute horien ezagutza.

Prestakuntza unitate asistentzialetan

Modu indibidualizatuan ezarriak. Ospitalizazioko unitateetan goizeko eta arratsaldeko txandak egingo dira.

Ikerketa-proiektua egin eta defendatzea

Osasun-prestakuntza amaitu aurreko hilabeteetan, prestakuntzan landu duten ikerketa-proiektuaren defentsa publikoa egingo dute egoiliarrek.

Etengabeko arreta – Guardiak (E1 eta E2)

Etengabeko arreta gisa emandako zerbitzuek prestakuntza-izaera dute, eta prestakuntza espezializatuak dirauen bi urteetan egitekoak dira.

Irakaskuntza Unitatearen edozein ospitale-unitatetan egin daitezke, ostiral gaueetan, larunbat gaueetan edo jaiegun-bezperan gauez.

Hilero planifikatzen dira; zehazki, bi guardia finkatzen dira hilean, lanaldiaren eta guardiaren (gaueko txanda) artean gutxienez 7 orduko atsedena egonik.

Baimenak urteko prestakuntzarako: lan pertsonala; ikerketa; ikastaro, biltzar eta zientziari buruzko bestelako ekitaldietara joatea

BAEEak prestakuntza-urte bakoitzeko 14 egun naturaleko baimena izan dezake ikasketa/lan pertsonalerako edo ekitaldi zientifikoetara joateko; betiere, tutore nagusiaren eta BAEEn espezialitateko koordinatzailearen oniritzia baldin badu.

Ikasteko / lan pertsonalak egiteko / ikertzeko orduak

Prestakuntzaren lehen urtean, 14 egun hartzeko baimen horren barruan, egoiliarrek **egun bat** hartu ahalko du **bi hilabetean behin**, lan pertsonalak egiteko, ikasteko edo bere ikerketa-proiektua egiteko: guztira 42 ordu (6 egun).

Prestakuntzaren bigarren urtean, berriz, ikerketa egiten ari bada, 6 egun horiek (42 ordu) batera baliatu ahalko ditu egoiliarrek.

ERROTAZIO EREDUA

<u>E1</u>	3 hilabete	3 hilabete	2 hilabete	3 hilabete
	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak Akutuen ospitalizazio unitatea, Haurrak eta Gazteak Arabako Unibertsitate Ospitalea, Santiago egoitza		Egonaldi luzeko/ertaineko errehabilitazio unitatea ASA, ARF-1, ARF-2A Arabako O. Psikiatrikoa	AOMSeko unitate berezia: Eguneko Osp. / MOTZ / PEU / ASA-G
<u>E2</u>	2 hilabete	4 hilabete	2 hilabete	3 hilabete
	Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko U. AOMS Akutuen ospitalizazio unitatea, Haur eta gazteak	Egonaldi ertaineko unitateak, Errehabilitazio programa dutenak: MOTZ (Eguneko Osp.) edo PEU Arabako O. Psikiatrikoa Errehabilitazio Komunitarioko Zerbitzua	AOMSen osasun mentaleko Zentro komunitarioak Salburua, Zabalgana, Aiara-Laudio, Zaballa	

Kronogramak urteko hamabi hilabeteak biltzen ditu, oporrak ez direlako sartzen hor: oporrak BAEE bakoitzarekin zehazten dira, modu individualizatuan.

Prestakuntzaren metodologia

Tutoreak lagundutako autoikaskuntza-metodoak:

- ◆ Parte-hartze aktiboa, esperientzian oinarritutako ikaskuntza.
- ◆ Tutoreak lagundutako eta programatutako praktika profesionala. Bertan erizainak bere ezagutzak hausnartu, osatu eta aplikatu egingo ditu, eta bere gaitasun eta jarrerak hobetu.
- ◆ Egoiliarren liburua.
- ◆ Gaiak prestatu eta aurkeztea.
- ◆ Prestakuntza-lantegi eta -mintegiak.
- ◆ Kasu klinikoak aurkeztu eta eztabaidatzea. Saio klinikoak.

Egoiliarren liburua erabiliko da tutoreak lagundutako autoikaskuntzarako, ezagutza osatzeko eta prestakuntzako eta azken ebaluaziorako oinarritzko tresna gisa.

BAEE GUZTIEN ERROTazio INDIBIDUALEN KRONOGRAMA

1. URTEA	Ekaina-Uztaila- Abuztua	Iraila-Urria-Azaroa	Abendua-Urtarrila- Otsaila	Martxoa-Apirila- Maiatza
BAEE 1	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak et Haur eta gazteak AUO Santiago		Errehabilitazio Funtzionala 1 (ARF1)	Azpiakutuen unitatea (ASA gazteak)
BAEE 2	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak et Haur eta gazteak AUO Santiago		Errehabilitazio Funtzionala 1 (ARF-2A)	Azpiakutuen unitatea (ASA helduak)
BAEE 3	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak et Haur eta gazteak AUO Santiago		Azpiakutuen unitatea (ASA helduak)	Errehabilitazio Intentsiboko Eremua (PEU)
BAEE 4	Azpiakutuen unitatea (ASA gazteak)	Errehabilitazio Funtzionala 1 (ARF1)	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak et Haur eta gazteak AUO Santiago	
BAEE 5	Errehabilitazio Funtzionala 1 (ARF1)	Azpiakutuen unitatea (ASA gazteak)	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak et Haur eta gazteak AUO Santiago	
BAEE 6	Azpiakutuen unitatea (ASA helduak)	Errehabilitazio Intentsiboko Eremua (PEU)	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak et Haur eta gazteak AUO Santiago	
BAEE 7	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak et Haur eta gazteak AUO Santiago		Azpiakutuen unitatea (ASA helduak)	Errehabilitazio Funtzionala 1 (ARF1)
BAEE 8	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak et Haur eta gazteak AUO Santiago		Errehabilitazio Intentsiboko Eremua (PEU)	Azpiakutuen unitatea (ASA helduak)
BAEE 9	Errehabilitazio Funtzionala 1 (ARF1)	Azpiakutuen unitatea (ASA helduak)	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak et Haur eta gazteak AUO Santiago	
BAEE 10	Azpiakutuen unitatea (ASA helduak)	Errehabilitazio Intentsiboko Eremua (PEU)	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak et Haur eta gazteak AUO Santiago	
BAEE 11	Errehabilitazio Funtzionala 1 (ARF-2A)	Azpiakutuen unitatea (ASA helduak)	Akutuen ospitalizazio unitatea, Helduak et Haur eta gazteak AUO Santiago	

Ospitalizazioko unitate asistentzial guztietan goizeko eta arratsaldeko txandak egiten dira.

2. URTEA	Ekaina-Uztaila- Abuztua	Iraila-Urria-Azaroa	Abendua-Urtarrila- Otsaila	Martxoa-Apirila- Maiatza
BAEE 1	Osasun mentaleko zentro komunitarioa		Errehabilitazio Intentsiboko Eremua (PEU)	Psikiatria Komunitarioko Zentroa (KPZ)
BAEE 2	Osasun mentaleko zentro komunitarioa		MOTZ	Errehabilitazio Intentsiboko Eremua (PEU)
BAEE 3	Osasun mentaleko zentro komunitarioa		Psikiatriako Eguneko Ospitalea	MOTZ
BAEE 4	MOTZ	Psikiatriako Eguneko Ospitalea	Osasun mentaleko zentro komunitarioa	
BAEE 5	HGOMU / UTH	MOTZ	Osasun mentaleko zentro komunitarioa	
BAEE 6	Psikiatriako Eguneko Ospitalea	HGOMU / UTH	Osasun mentaleko zentro komunitarioa	
BAEE 7	Osasun mentaleko zentro komunitarioa		Psikiatria Komunitarioko Zentroa (KPZ)	MOTZ
BAEE 8	Osasun mentaleko zentro komunitarioa		MOTZ	HGOMU / UTH
BAEE 9	Osasun mentaleko zentro komunitarioa		HGOMU / UTH	Psikiatriako Eguneko Ospitalea
BAEE 10	MOTZ	Psikiatria Komunitarioko Zentroa (KPZ)	Osasun mentaleko zentro komunitarioa	
BAEE 11	Psikiatria Komunitarioko Zentroa (KPZ)	MOTZ	Osasun mentaleko zentro komunitarioa	

Ospitalizazioko unitate asistentzial hauetan goizeko eta arratsaldeko txandak egiten dira:

HGOMU: Haur eta gazteen osasun mentaleko unitatea

MOTZ: Mendekotasunen orientazio eta tratamendu zentroa

PKZ: Psikiatria komunitarioko zentroa

PEU: Psikosi errefraktarioen unitatea

Erantzukizun progresiboa. Ardura-mailak

Prestakuntza-denbora bakoitzean egoiliarrak gutxieneko jardura batzuk egin behar ditu, behar adinako esperientzia hartzeaz gain, errotazio bakoitzean segurtasunez bere gain har dezan osasun mentaleko erizain espezialistaren eginkizuna betetzeko behar duen erantzukizun progresiboa. Horretarako, 3 ardura-maila eta gainbegiratze-beharren 3 maila ezarri dira.

- **3. maila - Gutxieneko erantzukizuna/aurrez aurreko gainbegiratzea:** Egoiliarrak jardura jakin batzuen ezagutza teorikoa baino ez du, baina esperientziarik ez. Egoiliarrak erizain espezialista arduradunaren jardura behatzen du eta bertan dago, baina erizain espezialistak egiten du esku-hartzea.
- **2. maila - Erantzukizun ertaina/gainbegiratze zuzena:** Egoiliarrak nahikoa ezagutza du, baina ez du behar adina esperientzia lortzen jardura jakin bat modu independentean egiteko. Jardura horiek tutoreak edo erizain espezialista arduradunak zuzenean gainbegiratuta egin behar dira.
- **1. maila - Erantzukizun handiena/eskariaren araberako gainbegiratzea:** Eskuratutako trebetasunei esker, egoiliarrak jardura independenteak egin ditzake, tutoretza zuzenaren beharrik gabe. Beraz, egoiliarrak egin egingo du eta, ondoren, erizain espezialista arduradunari jakinaraziko dio. Beharrezkotzat jotzen badu, gainbegiratzea eskatu du.

3. gainbegiratze-mailatik 2ra edo 2. mailatik 1era igarotzea progresiboa izango da, eta ez da egoitza-urtearen araberakoa bakarrik izango, baita tutoreak edo erizain espezialista arduradunak adierazitakoaren eta egoiliarraren ezaugarri indibidualen araberakoa ere. Horregatik, eskuratutako eta frogatutako trebetasunen eta gaitasunen banakako balorazioa egingo da.

Egoiliar batek bere prestakuntzan aurrera egiteko beharrezkoak diren ezagutzak lortzen ez dituenean, ezin da dagokion jardueraren gainbegiratze-maila murriztu, eta hori egoiliarraren tutore nagusiari jakinarazi behar zaio. Tutoreak errotazioaren gainbegiratze-maila egokitu eta birdefinitu ahal izango du, harik eta egoiliarraren progresioak prestakuntzaren kalitatea bermatzen duela egiaztatu arte.

ERROTAZIOEN HELBURUAK

Errotazio bakoitzerako helburu espezifikoak

ARABAKO ESI

Akutuen Ospitalizazioko Unitatea: Helduak.

- Unitatearen azken helburua, funtzionamendua, osasun mentaleko asistentzia-sarean duen lekua eta bertara sartzeko edo deribatze bideak ezagutzea.
- Osasun mentaleko ospitale-arretaren filosofia eta biztanleriaren ezaugarri sozialak, demografikoak eta epidemiologikoak ulertzea.
- Diziplina anitzeko taldearen osaera eta antolamendua ezagutzea eta talde horretan integratzea, arau orokorrak, asistentzia-filosofia eta unitatearen helburuak bere eginez.
- Osasun mentaleko erizainak ospitalizazio unitatean duen funtzioa ezagutzea, gaitasun kritikoa eta gogoetatsua garatuz eta interesa eta erantzukizuna erakutsiz.
- Osasun mentaleko prozesu akutu ohikoenak eta desberdinak ezagutzea, eta erizaintzako esku-hartzea aplikatzea, prozesu horiei heltzeko eta maneiatzeko.
- Ospitalizazioan zainketak ematea, balorazio eta prozesu diagnostiko egoki batean oinarrituta, eta erizaintzako esku-hartzeak egitea, arreta indibidualizatu eta integralaren kontzeptuarekin bat etorritik, ebidentzia zientifikoan oinarrituta eta pazientearen historia klinikoan dagozkion erregistroak betez.
- Ingresatzen diren pazienteen balorazio-elkarrizketetan eta jarraipen-elkarrizketetan trebetasunez jokatzeko, harreman terapeutikoaren garapena sustatuz.
- Asistentzia-taldeari dagozkion erantzukizunen berri ematea.
- Unitatean garatzen diren tratamendu eta jarduerak behar bezala eta segurtasunez erabiltzea (tratamendu psikofarmakologikoak, biologikoak, psikoheziketakoak, TEKak, etab.), eta tratamendu eta jarduera horien ondorio eta albo-ondorioei behar bezala erantzutea.

- Krisietako eta larrialdi-egoeretako esku-hartzeak ezagutzea, baloratzea eta maneiatzea, dagozkion euste- eta babes-neurriak aplikatuta.
- Unitatean dauden pertsonen arreta emateko beharrezkoak diren espezialitate mediko, dispositibo eta laguntza-eremu sanitario eta soziosanitarioekin koordinatzea.
- Zerbitzuari dagokion unitateari eta antolamenduari buruzko protokoloak aplikatzea.
- Erizaintzako profesionalekin eta OMko beste espezialitate edo arreta-eremu batzuetako profesionalekin koordinatzea, zainketen jarraitutasuna eta pertsonaren jarraipen eta tratamendu egokia eta integrala errazteko.
- Baliabide sozialak eta soziosanitarioak ezagutzea, baita osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen arretaren legezko alderdiak ere, familia/tutoreak orientatzeko.
- Pazienteei/bezeroei, familiei, beste profesional batzuei eta taldeei zuzendutako heziketa-, informazio- eta prestakuntza-prozesuetan laguntzea eta prozesu horiek garatzea.
- Akutuen Psikiatriako Unitatearen kalitatearen kudeaketan modu eraginkor eta efizientean parte hartzea, segurtasun klinikoko irizpideei jarraikiz.
- Osasun mentaleko erizaintzan ikertzea eta diziplina anitzeko taldearen ikerketan parte hartzea.
- Indarrean dagoen legeria ezagutzea eta osasun mentalaren arloko printzipio etikoak aplikatzea (ez-borondatezko ospitalizazioak, tratamendu judizialak, etab.).
- Trebetasunak erakustea osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen integrazioari buruz gizartea sentsibilizatzeko eta estigmaren kontra egiteko, baita praktika asistentziala humanizatzeko ere.

Akutuen Ospitalizazioko Unitatea: Haurrak eta Gazteak

- Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko unitatearen azken helburua zein den jakitea, nola funtzionatzen duen jakitea, eta osasun mentaleko asistentzia-sarean zein leku betetzen duen eta zer sarbide eta deribazio dituen jakitea.
- Zerbitzuaren arretaren filosofia eta bertan artatutako biztanleriaren ezaugarri sozial, demografiko eta epidemiologikoak ulertzea.
- Diziplina anitzeko taldearen osaera, antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea, eta bertan eta lan-dinamikan integratzea.
- Osasun mentaleko erizainak zerbitzuan betetzen duen funtzioa ezagutzea eta diziplina anitzeko taldearen barruan esleitzen zaizkion erantzukizunak bere gain hartzea.
- Unitatean haur eta gazteei arreta emateko patologia akutu ohikoenak ezagutzea eta kasu bakoitzerako egokiak diren erizaintzako esku-hartzeak egitea.
- Ospitalizazioan zainketak ematea, balorazio eta prozesu diagnostiko egoki batean oinarrituta, eta erizaintzako esku-hartzeak egitea, arreta indibidualizatu eta integralaren kontzeptuarekin bat etorritik, ebidentzia zientifikoan oinarrituta eta pazientearen historia klinikoan dagozkion erregistroak betez.
- Ingresatutako pazienteen profilerak egokitutako talde-jarduera psikohezkuntzakoak eta ludikoak dinamizatzea
- Ingresatzen diren pazienteen balorazio-elkarrizketetan eta jarraipen-elkarrizketetan trebetasunez jokatzeko, harreman terapeutikoaren garapena sustatuz.
- Krisietako eta larrialdi-egoeretako esku-hartzeak ezagutzea, baloratzea eta maneiatzea, dagozkion euste- eta babes-neurriak aplikatuta.
- Unitatean garatzen diren tratamendu eta jarduerak behar bezala eta segurtasunez erabiltzea (tratamendu psikofarmakologikoak, biologikoak, jokabidezkoak, taldeak, psikohezkuntzakoak, etab.), eta tratamendu eta jarduerak horien ondorio eta albo-ondorioei behar bezala erantzutea.
- Unitateari eta erakundeari buruzko protokoloak aplikatzea.

- Unitatean artatutako haur eta gazteei arreta emateko beharrezkoak izan daitezkeen medikuntza-, gizarte-, gizarte-, osasun- eta hezkuntza-arloko espezialitateekin koordinatzea.
- Zerbitzuan artatutako osasun mentaleko arazoak dituzten haur eta gazteentzako arretaren gizarte-baliabideak eta lege-alderdiak ezagutzea, familiak orientatu ahal izateko.
- Pazienteei, familiei eta taldeei zuzendutako hezkuntza-, informazio- eta prestakuntza-prozesuetan laguntzea eta prozesu horiek garatzea.
- Akutuen Psikiatriako Unitatearen kalitatearen kudeaketan modu eraginkor eta efizientean eta segurtasun klinikoko irizpideei jarraikiz parte hartzea.
- Beste profesional batzuen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea.
- Osasun mentaleko erizaintzan ikertzea eta diziplina anitzeko taldearen ikerketan parte hartzea.
- Haur eta gazteen osasun mentalaren arloan indarrean dagoen legeria ezagutzea eta printzipio etikoak aplikatzea.

Larrialdietako zerbitzua

- Larrialdietako Zerbitzuaren funtzionamendua eta helburua ezagutzea osasun mentalaren arloan:
 - Larrialdietako zerbitzuaren kontzeptua eta Osasun Sarean eta Osasun Mentaleko Sarean dagokion arreta-maila ulertzea.
 - Larrialdi psikiatrikoetako zerbitzu baten ezaugarriak ezagutzea.
 - Ospitaleko larrialdietan osasun mentaleko arreta egotearen abantailak eta eragozpenak ezagutzea.
 - Osasun mentalaren arloan jarraitu beharreko barne- eta kanpo-zirkuituak, protokoloak eta prozedurak ezagutzea.
 - Eskariaren modalitateak eta balorazioa ezagutzea:

- Osasun mentaleko triajea osatzen duten erizaintzako jardueretan laguntzea.
 - Eskaria eta ospitalizazio motak ezagutzea. Larrialdi psikiatrikoaren kontzeptua eta motak.
 - Krisia eta larrialdi psikiatrikoa identifikatzea. Larrialdi psikiatrikoaren eta krisiaren arteko aldea ulertzea.
 - Krisi edo larrialdi psikiatriko bati aurre egiten laguntzea.
- Larrialdietako Zerbitzuko Zainketa Plana osatzen duten erizaintzako jarduerak ezagutzea eta horietan parte hartzea (bizi-konstanteak hartzea, toxikoen kontrola, analisiak, urdail-garbiketak, medikazioa ahoz eta bide parenteralez ematea, etab.):
 - Larrialdi psikiatrikoetan laguntzeko lanetan edo krisietan esku hartzeko modalitateetan laguntzea.
 - Pazienteei eta familiei larrialdi-zerbitzuaren erabilera egokiari buruzko aholkuak ematen laguntzea.
 - Zitak kudeatzen eta osasun mentaleko dispositibo, elkarte edo gune soziosanitarioetara bideratzen laguntzea.
 - Alta emateko gomendioetan laguntzea eta, hala badagokio, koordinatzea.
 - Zerbitzuan indarrean dagoen erizaintzako zainketen araudi eta metodologiaren eskuliburu ezagutzea.
 - Zainketen plangintzan laguntzea, eskuliburu horren arabera, hala badagokio.
 - Zaintza-planak gauzatzen eta erregistratzen laguntzea.
 - Pazientearekin lotutako arriskuak baloratzea (ihes egiteko arriskua, autolitikoa, auto- eta heteroagresibitatea, etab.).
 - Larrialdi psikiatrikoetan gehien erabiltzen diren farmakoak ezagutzea.
 - Psikofarmakoak ematen laguntzea, ahotik hartzen edo medikazio injektagarriaren bidez. Eta haren administrazioa eta sinadura erregistratzea, hala badagokio.

- Euspen mekanikoko protokoloa ezagutzea eta immobilizatutako pazienteari zainketa espezifikoak aplikatzen laguntzea.
- Senideei edo laguntzaileei harrera egiten eta informazioa ematen laguntzea, baita ospitalez kanpoko dispositiboak behar dituzten pazienteei edo senideei laguntza eta aholkularitza ematen ere.
- Ingresua koordinatzea eta solairuko erizaintzari informazioa ematea diagnostikoari, pazientearen igoera-egoerari eta solairuan beharko dituen neurriei buruz.
- Pazienteari psikiatriako solairura lekualdatzean laguntzea, pazienteen eta langileen segurtasuna bermatuz.
- Ospitalizazio-solairura eraman aurretik tratamendu-pauta ziurtatzea.
- Erregistratzeko eta ebaluatzeko sistemetan parte hartzea.
- Zainketa-plana erregistratzeko sistemak ezagutzea:
 - Alta emateko pazientea prestatzen laguntzea eta, hala badagokio, alta ematean erizaintzako txostena egitea.
 - Erizaintzako administrazio-lanak edo bestelakoak egiten laguntzea (bolanteen kudeaketa, material-eskaerak, matxurak, etab.), araudi eta erregelamendu horiek oinarritzat hartuta.
- Erizaintzako taldea eta diziplina anitzeko taldea ezagutzea eta horietan parte hartzea:
 - Talde-lanaren eta lantalde baten koordinazioaren edo gainbegiratzearen oinarritzako alderdiak ezagutzea.
 - Taldeko profesional bakoitzaren funtzioak ezagutzea.
- Larrialdi-zerbitzu baten alderdi etikoak eta legalak ezagutzea eta aplikatzea:
 - Ospitalizazio psikiatrikoari eragiten dion lege-esparrua ezagutzea.
 - Erizaintza psikiatrikoko praktikaren ondorio legalak ezagutzea.

- Paziente psikiatrikoen baimen eta agindu judizialetan izapideak eta jarduteko modua ezagutzea.
- Unitatean garatzen diren irakaskuntza-jarduerak ezagutzea eta horietan laguntzea:
 - Larrialdietako langileen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea.
 - Larrialdi-zerbitzu bateko ikerketa-lanaren oinarritzko ildoak ezagutzea.

Ospitalizazio Partzialeko Unitatea (OPU)

- Unitatearen azken helburua, asistentzia-filosofia eta funtzionamendua ezagutzea, bai eta osasun mentaleko asistentzia-sarean duen lekua ere.
- Diziplina anitzeko taldearen ezaugarriak ezagutzea eta talde horretan integratzea.
- Zerbitzuari dagokion unitateari eta antolamenduari buruzko protokoloak aplikatzea.
- Zainketak ematea balorazio eta prozesu diagnostiko egokian oinarrituta, eta erizaintzako esku-hartzeak egitea, arreta individualizatuaren eta integralaren kontzeptuarekin bat etorriz, ebidentzia zientifikoan oinarrituta eta pazientearen historia klinikoan dagozkion erregistroak betez.
- Modu ambulatorioan joaten diren edo telefonoz harremanetan jartzen diren pazienteen balorazio-elkarrizketetan eta jarraipen-elkarrizketetan trebetasunez jokatzea, harreman terapeutikoaren garapena sustatuz.
- Pertsonen arreta emateko beharrezkoak diren proba osagarriak edo medikuntza-espezialitateetarako, laguntza-dispositiboetarako eta laguntza-eremu sanitario eta soziosanitarioetarako bideratzeak koordinatzea eta kudeatzea.
- Depresio uni/bipolarraren, lehen gertakari psikotikoen eta arrisku handiaren, ospitalizazioen prebentzioaren, alta goiztiarraren eta adinekoen eta adingabeen jantoki terapeutikoaren programetan parte hartzea.
- Unitatean garatzen diren tratamenduak eta jarduerak behar bezala eta segurtasunez erabiltzea (tratamendu psikofarmakologikoak, psikoheziketakoak, TEKak, ketamina eta

esketamina, etab.) eta tratamendu eta jarduera horien ondorio eta albo-ondorioei behar bezala erantzutea.

- Krisietako eta larrialdi-egoeretako esku-hartzeak ezagutzea, baloratzea eta maneiatzea, dagozkion euste- eta babes-neurriak aplikatuz eta, behar izanez gero, ospitalizazio beharra kudeatuz.
- Asistentzia-taldeari asistentzia-dinamikan bere gain hartzen dituen erantzukizunen berri ematea.
- Erizaintzako profesionalekin eta osasun mentaleko beste espezialitate edo arreta-eremu batzuetako profesionalekin koordinatzea, zainketaren jarraitutasuna eta pertsonaren jarraipen eta tratamendu egokia eta integrala errazteko.
- Pazienteei/bezeroei, familiei eta taldeei zuzendutako hezkuntza-, informazio- eta prestakuntza-prozesuetan laguntzea eta prozesu horiek garatzea.
- Erizaintzako eta unitateko ikerlanetan laguntzea eta parte hartzea
- Ospitalizazio partzialeko unitatearen kalitatearen kudeaketan parte hartzea, modu eraginkor eta efizientean eta segurtasun klinikoko irizpideei jarraikiz.
- Beste profesional batzuen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea.

Jantoki terapeutikoa

- Zerbitzuaren azken helburua, asistentziaren filosofia, funtzionamendua eta osasun mentaleko asistentzia-sarean eta elikadura-programa intentsiboaren barruan duen lekua ezagutzea.
- Diziplina anitzeko taldearen ezaugarriak ezagutzea eta talde horretan integratzea.
- Pazienteari/familiari harrera egitea eta jantoki terapeutikoaren dinamikan integratzea, eta dagozkion administrazio-kudeaketekin osatzea.
- Pazientea jantoki terapeutikoko dinamikan eta paziente-taldean integratzea laguntzea.
- Pazienteari eta familiari erizaintzako zainketak ematea, domeinuen araberako balorazio indibidualizatua eta integrala eginez eta elikadura-portaeraren nahasmenduan arduatutako zainketen plangintza eginez, eta aldaketarako motibazioa pazientearen indarguneetan oinarrituta landuz.
- Planifikatutako zainketei ematen dizkien erantzunak erregistratzea, hala nola elikadurarekiko jarrera, portaera eta harremana, arrisku-jokabideak detektatzen saiatuz.
- Talde-jarduera psikohezitzaileak (mindfulness, metakognizioa, etab.) eta ludikoak prestatzea, kudeatzea eta burutzea diziplina anitzeko taldean, pazienteei elikadura-portaeraren arazoari aurre egiteko tresnak emanez, eta gaixotasunaren kontzientzia eta atxikidura terapeutikoa sustatuz.
- Krisietako eta larrialdi-egoeretako esku-hartzeak ezagutzea, baloratzea eta maneiatzea, dagozkion euste- eta babes-neurriak aplikatuz eta, behar izanez gero, ospitalizazio beharra kudeatuz.
- Tratamendu farmakologikoa hartzen dela ziurtatzea, ondorio kaltegarririk edo albo-ondoriorik dagoen baloratzea eta erreferentziazko profesionalari jakinaraztea.
- Erizaintzako profesionalekin eta beste espezialitate batzuetako (dietetika-endokrinoa) edo osasun mentaleko arreta-eremuetako profesionalekin koordinatzea, zainketen jarraipena eta pertsonaren jarraipen eta tratamendu egokia eta integrala errazteko.
- Atxikidura terapeutikoa eta zainketen jarraitutasuna bermatzea, aliantza terapeutiko estu baten bidez.

- Paziente/bezeroei, familiei eta taldeei zuzendutako hezkuntza-, informazio- eta prestakuntza-prozesuetan laguntzea eta horiek garatzea, gaixotasunaren narriaduragatik galdutako edo gutxitutako ohitura osasungarriak berreskuratzea motibatuzko, suspertzeko eta laguntzeko.
- Elikadura-portaeraren nahasmenduekin lotutako baliabide sozialak, sanitarioak, soziosanitarioak eta elkarteak ezagutzea eta horiei buruzko aholkuak ematea.
- Erizaintzako eta Zerbitzuko ikerlanetan laguntzea eta parte hartzea, dagozkien eskalak aplikatuta.
- Jantoki terapeutikoaren kalitatearen kudeaketan modu eraginkor eta efizientean parte hartzea, segurtasun klinikoko irizpideei jarraikiz.
- Beste profesional batzuen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea.

Elikadura-programa intentsiboa

- Zerbitzuaren filosofia, helburuak eta funtzionamendua ezagutzea, baita osasun mentaleko asistentzia-sarean betetzen duen lekua ere.
- Diziplina anitzeko taldearen ezaugarriak ezagutzea eta talde horretan integratzea, agindutako erantzukizunak eta ezarritako arauak bere gain hartuz.
- Adinekoen eta adingabeen elikadura-portaeraren nahasmenduen izaera ulertzea, eta gaixotasun horien komorbilitatean, alderdi fisikoetan eta psikologikoetan behar diren zainketak ezagutzea eta aplikatzea.
- Erizaina/pazientea, familia/taldea harremana behar bezala erabiltzea planteatzen diren egoeretan.
- Pazienteari/familiari erizaintzako zainketak ematea, pazientearen domeinuen araberako balorazio indibidualizatua eta integrala eginez eta elikadura-portaeraren nahasmenduan ardaztutako zainketen plangintza eginez, eta aldaketarako motibazioa indarguneetan oinarrituta landuz.

- Planifikatutako zainketei emandako erantzunak erregistratzea, hala nola elikadurarekiko jarrera, portaera eta harremana, arrisku-jokabideak detektatzen saiatuz.
- Krisietako eta larrialdi-egoeretako esku-hartzeak ezagutzea, baloratzea eta maneiatzea, dagozkion euste- eta babes-neurriak aplikatuz eta, behar izanez gero, ospitalizazio beharra kudeatuz.
- Erizaintzako profesionalekin eta beste espezialitate batzuetako (dietetika-endokrinoa) edo osasun mentaleko arreta-eremuetako profesionalekin koordinatzea, zainketen jarraipena eta pertsonaren jarraipen eta tratamendu egokia eta integrala errazteko.
- Atxikidura terapeutikoa eta zainketen jarraitutasuna bermatzea, aliantza terapeutiko estu baten bidez.
- Paziente/bezeroei, familiei eta taldeei zuzendutako hezkuntza-, informazio- eta prestakuntza-prozesuetan laguntzea eta horiek garatzea, gaixotasunaren narriaduragatik galdutako edo gutxitutako ohitura osasungarriak berreskuratzea motibatuzko, suspertzeko eta laguntzeko.
- Elikadura-portaeraren nahasmenduarekin lotutako baliabide sozialak, sanitarioak, soziosanitarioak eta elkarteak ezagutzea eta horiei buruzko aholkuak ematea.
- Erizaintzako eta unitateko ikerlanetan laguntzea eta parte hartzea, dagozkien eskalak aplikatuta.
- Jantoki terapeutikoaren kalitatearen kudeaketan modu eraginkor eta efizientean parte hartzea, segurtasun klinikoko irizpideei jarraikiz.
- Beste profesional batzuen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea.

ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREA

Egonaldi Luzeko/Egonaldi Ertaineko Errehabilitazio Unitatea (ASA, ARF)

- Unitatearen azken helburua, funtzionamendua, osasun mentaleko asistentzia-sarean duen lekua eta bertara sartzeko edo deribatze bideak ezagutzea.
- Diziplina anitzeko taldearen osaera eta antolamendua ezagutzea eta talde horretan integratzea, arau orokorrak, asistentziaren filosofia eta unitatearen helburuak bere eginez.
- Osasun mentaleko erizainak ospitalizazio unitatean duen funtzioa ezagutzea, gaitasun kritikoa eta gogoetatsua garatuz eta interesa eta erantzukizuna erakutsiz.
- Osasun mentaleko ospitale-arretaren filosofia eta biztanleriaren ezaugarri sozialak, demografikoak eta epidemiologikoak ulertzea.
- Erizaintzako zerbitzuaren kalitatearen kudeaketan modu eraginkor eta efizientean parte hartzea.
- Erizaina/pazientea, familia/taldea harremana behar bezala maneiatzea planteatzen diren egoeretan.
- Unitateko osasun mentaleko arazo ohikoenak eta espezifikoak ezagutzea, unitatean erabiltzen diren tratamenduak, indikazioak, lortu nahi diren ondorioak, albo-ondorioak eta abar ezagutzea, baita horien erabilera ezagutzea ere.
- Zaintzen duen pertsona bakoitzaren indibidualtasuna errespetatzea, bere kabuz egin dezakeen guztia sustatzea eta, behar izanez gero, bere narriadura mental edo fisikoagatik egin ezin duen guztia ordeztzea.
- Pazienteari arreta integrala eta indibidualizatua ematea. Pazienteen arazoak edo jokabide-aldaketak behatzea eta detektatzea.
- Pertsonen, familien eta taldeen zainketak ematea, balorazio eta prozesu diagnostiko egoki batean oinarrituta, eta erizaintzako esku-hartzeak egitea, arreta integralaren kontzeptuaren arabera, ebidentzia zientifikoan oinarrituta, Ospitale Psikiatrikoko egonaldi luzeko unitatearen esparruan.
- Unitateko protokoloak aplikatzea hainbat egoeratan: TEK, ihesak, suizidio-saiakerak, etab.

- Paziente psikiatrikoen errehabilitazioaren zentzua eta errehabilitazio psikiatrikoko programak ezagutzea.
- Programa terapeutikoak eta banakako errehabilitaziokoak egiten eta horien jarraipena egiten parte hartzea.
- Jarraipena egiteko esku-hartze terapeutikoa egitea maila indibidualean.
- Paziente/bezeroei, familiei eta taldeei zuzendutako hezkuntza- eta errehabilitazio-prozesuetan laguntzea eta prozesu horiek garatzea, paziente bakoitzaren bizi-kalitatea ahalik eta onena izan dadin.
- Beste profesional batzuen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea.
- Indarrean dagoen legeria ezagutzea eta osasun mentalaren arloko printzipio etikoak aplikatzea (ez-borondatezko ospitalizazioak, tratamendu judizialak eta abar).
- Osasun mentaleko erizaintzan ikertzea eta diziplina anitzeko taldearen ikerketan parte hartzea.
- Krisi-egoerak antzematea, baloratzea eta maneiatzea, horiei aurre egiteko neurriak aplikatuta (hitzezko deseskalada; konfort-sentsorialeko gela erabiltzea; euspen mekanikoa edo euste farmakologikoa, preskripzioaren arabera).
- Erizaintzako profesionalekin eta osasun mentaleko beste espezialitate edo arreta-eremu batzuetako profesionalekin koordinatzea, zainketen jarraitutasuna eta pertsonaren jarraipen eta tratamendu egokia eta integrala errazteko.
- Trebetasunak erakustea osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen integrazioari buruz gizartea sentsibilizatzeko eta estigmaren kontra egiteko, baita praktika asistentziala humanizatzeko ere.
- Tratamenduak eta jarduerak behar bezala eta segurtasunez erabiltzea (tratamendu psikofarmakologikoak, esketamina, estimulazio transkraneala, etab.) eta tratamendu eta jarduera horien ondorio eta albo-ondorioei behar bezala erantzutea.

Egonaldi ertaineko unitatea, errehabilitazio-programekin. Unitate bereziak (PEU, ASA gazteak)

- Unitatearen azken helburua, funtzionamendua, osasun mentaleko asistentzia-sarean duen lekua eta bertara sartzeko edo deribatze bideak ezagutzea.
- Diziplina anitzeko taldearen osaera eta antolamendua ezagutzea eta talde horretan integratzea, arau orokorrak, asistentziaren filosofia eta unitatearen helburuak bere eginez.
- Osasun mentaleko erizainak ospitalizazio unitatean duen funtzioa ezagutzea, gaitasun kritikoa eta gogoetatsua garatuz eta interesa eta erantzukizuna erakutsiz.
- Osasun mentaleko ospitale-arretaren filosofia eta biztanleriaren ezaugarri sozialak, demografikoak eta epidemiologikoak ulertzea.
- Erizaintzako zerbitzuaren kalitatearen kudeaketan modu eraginkor eta efizientean parte hartzea.
- Erizaina/pazientea, familia/taldea harremana behar bezala maneiatzea planteatzen diren egoeretan.
- Unitateko osasun mentaleko arazorik ohikoenak eta espezifikoak ezagutzea, erabilitako tratamenduak, indikazioak, lortu nahi diren efektuak, albo-ondorioak, etab. ezagutzea, eta horiek maneiatzea.
- Arreta integrala ematea eta zaintzen duen gizaki bakoitzaren indibidualtasuna errespetatzea.
- Pazientearen gaitasun guztiak sustatzea, ahalmenak garatzen laguntzea eta lorpen guztiak indartzea.
- Pertsonen, familiei eta taldeei zaintzak ematea, balorazio egokian eta ebidentzia zientifikoan oinarritutako prozesu diagnostikoan oinarrituta, arreta integralaren kontzeptuaren arabera.
- Paziente psikiatrikoaren errehabilitazioaren zentzua ezagutzea.
- Krisi-egoerak ezagutzea, baloratzea eta maneiatzea, horiei aurre egiteko neurriak aplikatuz (hitzezko deseskalada; konfort-sentsorialeko gela erabiltzea; euspen mekanikoa edo euste farmakologikoa, preskripzioaren arabera).

- Programa terapeutikoak eta banakako errehabilitaziokoak egitea eta horien jarraipena egiten parte hartzea.
- Unitatearen jarduketa-gidak eta protokoloak pazientearen inguruabarretara eta ezaugarrietara egokitzea.
- Errehabilitazio-plan indibidualak aplikatzea, eta errehabilitazio-prozesuaren bilakaera ebaluatzea eta haren jarraipena egitea.
- Jarraipena egiteko esku-hartze terapeutikoa egitea maila indibidualean.
- Pazienteak/bezeroak, familiak eta taldeak bere bizitzako autonomia berreskuratzen bideratutako hezkuntza-prozesuetan laguntzea eta prozesu horiek garatzea, gaixoak bere osasun-mailarik onena eta ahalik eta bizi-kalitate onena lor dezan, egoeraren arabera.
- Beste profesional batzuen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea.
- Osasun mentaleko erizaintzan ikertzea eta diziplina anitzeko taldearen ikerketan parte hartzea.
- Krisi-egoerak konpondu eta bideratzea.
- Erizaintzako profesionalekin eta osasun mentaleko beste espezialitate edo arreta-eremu batzuetako profesionalekin koordinatzea, zainketen jarraitutasuna eta pertsonaren egoeraren araberrako jarraipen eta tratamendu egokia eta integrala errazteko.
- Trebetasunak erakustea osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen integrazioari buruz gizartea sentsibilizatzeko eta estigmaren kontra egiteko, baita praktika asistentziala humanizatzeko ere.

Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Programak edo Zerbitzuak (HGOMU)

- Unitatearen azken helburua, funtzionamendua, osasun mentaleko asistentzia-sarean duen lekua eta bertara sartzeko edo deribatze bideak ezagutzea.
- Osasun mentaleko arreta komunitarioaren filosofia eta biztanleriaren ezaugarri sozialak, demografikoak eta epidemiologikoak ulertzea.
- Diziplina anitzeko taldearen osaera eta antolamendua ezagutzea eta talde horretan integratzea, arau orokorrak, asistentziaren filosofia eta unitatearen helburuak bere eginez.
- Osasun mentaleko erizainak unitatean duen funtzioa ezagutzea, gaitasun kritikoa eta gogoetatsua garatuz eta interesa eta erantzukizuna erakutsiz.
- Unitatean haur eta gazteei arreta emateko patologia ohikoenak ezagutzea.
- Haur eta gazteen osasun mentalaren arloan indarrean dagoen legeria ezagutzea eta printzipio etikoak aplikatzea.
- Pazienteen eta haien familien balorazio-elkarrizketetan eta jarraipen-elkarrizketetan trebetasunez jokatzeko.
- Erizaintza-prozesua egitea eta zainketak eta erizaintzako esku-hartzeak egitea pazienteei, familiei eta taldeei ebidentzia zientifikoa oinarrituta, unitatearen esparruko arreta integralaren kontzeptuaren arabera.
- Krisi-egoerak ezagutzea, baloratzea eta maneiatzea, horiei aurre egiteko neurriak aplikatuta.
- Haur eta gazteen osasun mentaleko zerbitzuaren kalitatearen kudeaketan modu eraginkor eta efizientean parte hartzea.
- Unitatean garatzen diren tratamenduak eta jarduerak behar bezala eta segurtasunez erabiltzea (tratamendu psikofarmakologikoak, biologikoak, jokabidezkoak, taldekoak, psiko-hezkuntzakoak, etab.) eta tratamendu eta jarduera horien ondorio eta albo-ondorioei behar bezala erantzutea.
- Zerbitzuan artatzen diren osasun mentaleko arazoak dituzten haur eta gazteentzako arretaren gizarte-baliabideak eta lege-alderdiak ezagutzea, familiak orientatu ahal izateko.

- Pazienteei/bezeroei, familiei, profesionaleri eta taldeei zuzendutako hezkuntza-, informazio- eta prestakuntza-prozesuetan laguntzea eta prozesu horiek garatzea.
- Unitatean artatutako hurrak edo gazteak artatzeko beharrezkoak izan daitezkeen medikuntzako espezialitateekin, zerbitzuekin eta laguntza-eremuekin koordinatzea.
- Larrialdi-egoerak antzematea, baloratzea eta maneiatzeko gai izatea, baita egoera bakoitzari dagozkion erizaintzako zainketak aplikatzea ere.
- Osasun mentaleko erizaintzan ikertzea eta diziplina anitzeko taldearen ikerketan parte hartzea.
- Trebetasunak erakustea osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen integrazioari buruz gizartea sensibilizatzeko eta estigmaren kontra egiteko, baita praktika asistentziala humanizatzeko ere.
- Beste profesional batzuen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea.

Osasun Mentaleko Zentro Komunitarioa (OMZ)

- Zentroaren azken helburua, funtzionamendua, osasun mentaleko asistentzia-sarean duen lekua eta bertara sartzeko edo deribatze bideak ezagutzea.
- Osasun mentaleko arreta komunitarioaren filosofia eta biztanleriaren ezaugarri sozialak, demografikoak eta epidemiologikoak ulertzea.
- Diziplina anitzeko taldearen osaera eta antolamendua ezagutzea eta talde horretan integratzea, arau orokorrak, zentroaren asistentzia-filosofia eta unitatearen helburuak bere eginez.
- Osasun mentaleko erizainak ospitalizazio unitatean duen funtzioa ezagutzea, gaitasun kritikoa eta gogoetatsua garatuz eta interesa eta erantzukizuna erakutsiz.
- Biztanleei OMZn arreta emateko patologia ohikoenak ezagutzea.
- Trebetasunez moldatzea patologia kronikoak dituzten pazienteen elkarrizketa klinikoetan, harrera- eta jarraipen-kontsultetan.
- Erizaintza-prozesua egitea eta zainketak eta erizaintzako esku-hartzeak egitea pertsoneri, familiei eta taldeei ebidentzia zientifikoan oinarrituta, zentroaren esparruko arreta integralaren kontzeptuaren arabera.

- Zentroan garatzen diren jardueretan parte hartzea (psikohezitzaileak, psikoterapeutikoak, erlaxatzekoak, errehabilitaziokoak edo birgizarteratzekoak, eta abar, pazienteei eta senideei zuzenduak).
- Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako arretaren gizarte-baliabideak eta lege-alderdiak ezagutzea, familiak orientatu ahal izateko.
- Koterapia-saioetan laguntzea diziiplina anitzeko taldeko beste kide batzuekin.
- Krisi-egoerak antzematea, baloratzea eta maneiatzea, horiei aurre egiteko neurriak aplikatuta.
- Asistentzia-zerbitzu edo -eremuekin koordinatzea.
- Taldeko bileran hartu dituen erantzukizunen berri ematea.
- Informazio- eta prestakuntza-saioetan parte hartzea lehen mailako arretako taldeekin.
- Osasun mentaleko erizaintzan ikertzea eta diziiplina anitzeko taldearen ikerketan parte hartzea.
- Trebetasunak erakustea osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen integrazioari buruz gizartea sentibilizatzeko eta estigmaren kontra egiteko, baita praktika asistentziala humanizatzeko ere.
- Beste profesional batzuen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea.

Psikiatria Komunitarioko Zentroa (PKZ)

- Zentroaren azken helburua, funtzionamendua, osasun mentaleko asistentzia-sarean duen lekua eta bertara sartzeko edo deribatze bideak ezagutzea.
- Osasun mentaleko arreta komunitarioaren filosofia eta biztanleriaren ezaugarri sozialak, demografikoak eta epidemiologikoak ulertzea.
- Diziiplina anitzeko taldearen osaera eta antolamendua ezagutzea eta talde horretan integratzea, arau orokorrak, zentroaren asistentzia-filosofia eta unitatearen helburuak bere eginez.
- Osasun mentaleko erizainak zerbitzuan duen funtzioa ezagutzea, gaitasun kritikoa eta gogoetatsua garatuz eta interesa eta erantzukizuna erakutsiz.
- Nahasmendu mental larria duten biztanleei arreta emateko patologia ohikoenak ezagutzea.

- Zerbitzuaren kalitatearen kudeaketan modu eraginkor eta efizientean parte hartzea.
- Komunitateko errehabilitazio-programekin lotutako erizain/paziente, familia/talde harremana behar bezala maneiatzea.
- Zerbitzuan agertzen diren osasun mentaleko arazorik ohikoenak ezagutzea, erabilitako tratamenduak, indikazioak, lortu nahi diren helburua, albo-ondorioak, eta abar, eta horien erabilera ezagutzea.
- Arreta integrala ematea eta zaintzen duen paziente bakoitzaren indibidualtasuna errespetatzea.
- Zentroko jarduketa-gidak eta protokoloak pertsonaren inguruabarretara eta ezaugarrietara egokitzea.
- NML duen pertsonaren gaitasun guztiak sustatzea, ahalmenak garatzen laguntzea eta lortutako lorpenak indartzea.
- Ebidentzia zientifikoan oinarritutako zainketak ematea, balorazio eta prozesu diagnostiko egoki batean oinarrituta, arreta integralaren kontzeptuaren arabera.
- Gaixotasun mental larria duen pazientearen errehabilitazioaren zentzua ezagutzea.
- Erizaintza-prozesua egitea eta zainketak eta erizaintzako esku-hartzeak egitea pertsonari, familiei eta taldeei ebidentzia zientifikoan oinarrituta, zentroaren esparruko arreta integralaren kontzeptuaren arabera.
- Krisi-egoerak antzematea, baloratzea eta maneiatzea, horiei aurre egiteko neurriak aplikatuta.
- Programa terapeutikoak eta banakako errehabilitaziokoak egiten eta horien jarraipena egiten parte hartzea.
- Errehabilitazio-plan indibidualak aplikatzea, eta errehabilitazio-prozesuaren bilakaera ebaluatzea eta haren jarraipena egitea.
- Jarraipena egiteko esku-hartze terapeutikoa egitea maila indibidualean.
- Pazienteak/bezeroak, familiak eta taldeak bere bizitzaren agintea berreskuratzen bideratutako hezkuntza-prozesuetan laguntzea eta horiek garatzea, pazienteak bere osasun-mailarik onena eta ahalik eta bizi-kalitaterik onena lor ditzan, egoeraren arabera.
- Erizaintzako profesionalekin eta osasun mentaleko beste espezialitate edo arreta-eremu batzuetako profesionalekin koordinatzea, arretaren eta erizaintzako zainketen

jarraitutasuna errazteko, bai eta pertsonaren egoeraren araberako jarraipen eta tratamendu egoki eta integralak egiteko ere.

- Osasun mentaleko erizaintzan ikertzea eta diziplina anitzeko taldearen ikerketan parte hartzea.
- Trebetasunak erakustea osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen integrazioari buruz gizartea sentibilizatzeko eta estigmaren kontra egiteko, baita praktika asistentziala humanizatzeko ere.
- Beste profesional batzuen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea.

Psikiatriako Eguneko Ospitalea

- Eguneko Ospitalearen azken helburua, funtzionamendua, osasun mentaleko asistentzia-sarean duen lekua eta bertara sartzeko edo deribatze bideak ezagutzea.
- Osasun mentaleko arreta komunitarioaren filosofia eta biztanleriaren ezaugarri sozialak, demografikoak eta epidemiologikoak ulertzea.
- Diziplina anitzeko taldearen osaera eta antolamendua ezagutzea eta talde horretan integratzea, arau orokorrak, asistentzia-filosofia eta unitatearen helburuak bere eginez.
- Osasun mentaleko erizainak zentroan duen funtzioa ezagutzea, gaitasun kritikoa eta gogoetatsua garatuz eta interesa eta erantzukizuna erakutsiz.
- Eguneko ospitalean biztanleei arreta emateko patologia ohikoenak ezagutzea.
- Iraupen luzeko tratamenduan egoteagatik osasun mentaleko erizaintzako kontsultara joaten diren paziente konpentsatuekin jarraipen-kontsultak egitea.
- Erizaintza-prozesua egitea eta zainketak eta erizaintzako esku-hartzeak egitea pertsonen, familiei eta taldeei ebidentzia zientifikoan oinarrituta, zentroaren esparruko arreta integralaren kontzeptuaren arabera.
- Krisi-egoerak antzematea, baloratzea eta maneiatzea, horiei aurre egiteko neurriak aplikatuta.
- Bere ardurakoak diren eta zentroan egiten diren jarduerak zuzentzea, taldeka edo banaka: terapia, irteerak, aldizkaria, sukaldea, etab.
- Eguneko Ospitalean artatutako pertsonen tratamendu integralari erantzuteko prozesua eta bilakaera gainbegiratzea.

- Behar duten pazienteak behar bezala baloratzea eta berehalako eskaerari erantzutea.
- Pazienteak programatutako jardueretan parte har dezan sustatzea (eguneko ospitalean bertan, beste asistentzia- edo gizarte-zerbitzu batzuetan, eta abarretan) eta horien emaitzaren jarraipena egitea.
- Laguntza, prestakuntza eta informazioa ematea erizaintzako beste talde batzuei, hala badagokio.
- Erizaintzako profesionalekin eta osasun mentaleko beste espezialitate edo arreta-eremu batzuetako profesionalekin koordinatzea, arretaren eta erizaintzako zainketen jarraitutasuna errazteko, bai eta pertsonaren egoeraren araberako jarraipen eta tratamendu egoki eta integralak egiteko ere.
- Osasun mentaleko erizaintzan ikertzea eta diziplina anitzeko taldearen ikerketan parte hartzea.
- Trebetasunak erakustea osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen integrazioari buruz gizartearen sentsibilizatzeko eta estigmaren kontra egiteko, baita praktika asistentziala humanizatzeko ere.
- Beste profesional batzuen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea.

Mendekotasunen Orientazio eta Tratamendu Zentroa (MOTZ)

- Zentroaren azken helburua, funtzionamendua, osasun mentaleko asistentzia-sarean duen lekua eta bertara sartzeko edo deribatze bideak ezagutzea.
- Osasun mentaleko arreta komunitarioaren filosofia eta biztanleriaren ezaugarri sozialak, demografikoak eta epidemiologikoak ulertzea.
- Diziplina anitzeko taldearen osaera eta antolamendua ezagutzea eta talde horretan integratzea, zentroko arau orokorrak, asistentzia-filosofia eta unitatearen helburuak bere eginez.
- Osasun mentaleko erizainak zentroan duen funtzioa ezagutzea, gaitasun kritikoa eta gogoetatsua garatuz eta interesa eta erantzukizuna erakutsiz.
- Mendekotasunak dituzten biztanleei arreta emateko patologia ohikoenak ezagutzea.
- Erizaina/pazientea, familia/taldea harremana behar bezala maneiatzea.
- Zentroko osasun mentaleko arazo espezifikoak eta erabilitako tratamenduak ezagutzea, baita indikazioak, lortu nahi diren ondorioak, albo-ondorioak...
- Medikuek agindutako tratamenduak ematea, albo-ondorioak eta ondorio onuragarriak balioetsita.
- Programa eta tratamendu berezietan ari diren pazienteen jarraipena eta zaintza egitea, protokoloa jarraituz: iraupen luzekoak, antagonistak, desintoxikazioak, eta abar...
- Erizaintzako kontsultak egitea, banaka, taldeka eta familian.
- Erizaintza-prozesua egitea eta zainketak eta erizaintzako esku-hartzeak egitea pertsonen, familiei eta taldeei ebidentzia zientifikoan oinarrituta, zentroaren esparruko arreta integralaren kontzeptuaren arabera.
- Krisi-egoerak antzematea, baloratzea eta maneiatzea, horiei aurre egiteko neurriak aplikatuta.
- Banakako programa terapeutikoak egiten parte hartzea.
- Mendekotasun-arazoetan errehabilitazioak duen zentzua ezagutzea eta mendekotasunen errehabilitazio-programen garapenean, jarraipenean eta ebaluazioan laguntzea.
- Errehabilitazio-jardueretan pazientearen parte-hartzea sustatzea.
- Pazienteei/bezeroei, familiei eta taldeei zuzendutako hezkuntza-prozesuak garatzea.

- Beste profesional batzuen prestakuntzan eta aholkularitzan laguntzea mendekotasunei eta horien ondorioei buruz.
- Osasun mentalaren eta mendekotasunen arloan indarrean dagoen legeria ezagutzea eta printzipio etikoak aplikatzea.
- Pazienteak zaintzera bideratutako taldearen koordinazio-bileretan parte hartzea (programen koordinazioa, etab.).
- Erizaintzako profesionalekin eta osasun mentaleko beste espezialitate edo arreta-eremu batzuetako profesionalekin koordinatzea, arretaren eta erizaintzako zainketen jarraitutasuna errazteko, bai eta pertsonaren egoeraren araberako jarraipen eta tratamendu egoki eta integralak egiteko ere.
- Osasun mentaleko erizaintzan ikertzea eta diziplina anitzeko taldearen ikerketan parte hartzea.
- Trebetasunak erakustea osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen integrazioari buruz gizartea sentsibilizatzeko eta estigmaren kontra egiteko, baita praktika asistentziala humanizatzeko ere.

PROGRAMA GAINDITZEKO EGIN BEHARREKO GUTXIENEO JARDUERAK

Erizain espezialistek gainbegiratuko dute prestakuntza, eta egoiliarren tutoreak ezarritako jarraibideak beteko dira. Gutxienez, honako jarduera kliniko hauek bete beharko dira **prestakuntza-aldi osoan zehar** prestakuntza-helburuak lortzeko:

EGIN BEHARREKO GUTXIENEO JARDUERAK	Kop.
Arreta psikiatrikoko lehen eskarien arretan parte hartzea	20
Programak koordinatzeko saioetan parte hartzea	10
Erizaintzako saio klinikoetan parte hartzea	10
Osasun mentaleko taldearen saio klinikoetan parte hartzea	20
Kasu klinikoak koordinatzeko alorreko saioetan parte hartzea	5
Erizaintzako saio klinikoak aurkeztea	6
Erizaintzako kontsultak egitea	65
- Banakakoak	50
- Senideak	15
Etxeko bisitak egitea	20
Pazientearen jarraipen osoa egitea, PEren arabera	13
Instalatutako 2 talde-prozesutan laguntzea	2
Larrialdi- edo krisi-egoeretan esku hartzea	10
Diziplinarreko taldeen/erizaintzako prestakuntza-saioetan parte hartzea	2
Osasun mentalerako Hezkuntza Programan parte hartzea	1
Errehabilitazio psikosozialeko programan parte hartzea	1
Arlo soziosanitarioko osasun mentaleko diagnosiaren etengabeko eguneraketan laguntzea	1
Osasun mentaleko erizaintzako kontsultarteko-programa diseinatzea beste jarduera-eremu batzuetako profesionalekin	1
Tratamenduko pazienteen erizaintzako zainketen jarraitutasunari buruzko txostenak egitea hainbat asistentzia-gailuren bidez	15

EGIN BEHARREKO GUTXIENEO JARDUERAK	Kop.
Osasun mentaleko erizaintzari buruzko ikerketa plana egitea	1

BAEE-AK GARATU EDO AURKEZTU BEHARREKO BESTE LAN BATZUK

1. urtea

- Psikofarmakologiari buruzko saioa, promozio bereko ikaskideei ikasgelan aurkeztu beharrekoa eta osasun mentalean espezialista den erizain aditu batek ikuskatua.
- Saio bibliografikoa, lehen urtean errotazioa egiten den unitateetan aurkeztu beharrekoa, beharrezkoa baldin bada.
- Prestakuntzako 1. eta 2. urteko ikaskideei azaldu beharreko kasu klinikoei buruzko bi saio kliniko, non zeharkako prestakuntza komuna lantzen den.
- Ikaskideek azaltzen dituzten kasuei buruzko saio kliniko guztietan parte hartzea.
- Garatu beharreko kasu klinikoak, pazienteari jarraipen osoa egiten zaiola.

2 kasu, AUOko helduen akutuen unitatekoak, Santiago egoitza, Arabako ESI.

2 kasu, AUOko haur eta gazteen akutuen unitatekoak, Santiago egoitza, Arabako ESI.

2 kasu, egonaldi luzeko/ertaineko ospitalizazio-unitatekoak, AOMS.

2 kasu, lehen urteko zerbitzu bereziko errotaziokoak.

2. urtea

- Osasun mentaleko erizaintzari buruzko irakaskuntza-mintegia, 1. urteko ikaskideei eman beharrekoa eta osasun mentalean aditua den erizain batek ikuskatua.
- Berrikuspen bibliografikoko saio kliniko publikoa Arabako Ospitale Psikiatrikoan.
- Berrikuspen bibliografikoko saio kliniko publikoa Arabako ESIan, beharrezkoa izanez gero.
- Prestakuntzako 1. eta 2. urteko ikaskideei azaldu beharreko kasu klinikoei buruzko bi saio kliniko, non zeharkako prestakuntza komuna lantzen den.
- Ikaskideek azaltzen dituzten kasuei buruzko saio kliniko guztietan parte hartzea.
- Garatu beharreko kasu klinikoak, pazienteari jarraipen osoa egiten zaiola.

4 kasu, OMZkoak.

2 kasu, errehabilitazio komunitariokoak edo Eguneko Ospitalekoak.

2 kasu, ospitalez kanpoko bitarteko baliabideetakoak.

Tutoreak edo egoiliarak berak proposatutako beste jarduera edo lan batzuk (berrikuspen bibliografikoak, komunikazioak, posterrak, etab.), ebaluaziorako kontuan hartuko direnak.

PRESTAKUNTZA-AMAIERAKO IKERKETA-PROIEKTUA

PRESTAKUNTZAN ARI DEN ESPEZIALISTAREN GAITASUN PROFESIONALAK
Zeharkako prestakuntza komunarekin lotuak

GAITASUNAK	Irakaskuntza eta ikerketaren metodologia	E1	E2
Praktika klinikoa eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikorik onenean oinarritzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> Gogoeta-jarreraz eta jakin-min zientifikoz egiten dio aurre praktika klinikoari. Argitalpen zientifikoen irakurketa kritikoa egiteko gaitasuna du. Praktika klinikoa eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikorik onenean oinarritzen du. 	X X X	X X X
Ezagutza zientifikoa sortzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> Ikerketa-prozesuaren faseak ezagutzen ditu, baita literatura zientifikoa bilatzeko eta ebaluatzeko estrategiak ere. Ikerketa kualitatibo eta kuantitatiborako diseinuak eta estrategiak ezagutzen ditu. Neurketa-tresnen eraketa, balioztatze eta aplikagarritasuna ezagutzen ditu. Datuak analizatzeko teknika kuantitatibo eta kualitatiboak, eta horietarako programa informatikoak ezagutzen ditu. Osasun mentaleko erizaintzan lehentasunezko ikerketa-ildoak ezagutzen ditu. Praktikaren ikerketa-premiak atzematen ditu. Ikerketa zientifikoaren printzipio etikoak aplikatzen ditu. Badu ezagutza zientifikoa sortzeko gaitasuna. Osasun mentaleko erizaintzari buruzko ikerketa-proiektu bat sortzen du prestakuntza-denboran. 	X X X X X X	X X X X X X
Ezagutza zientifikoa hedatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> Ezagutzen ditu argitalpen zientifikoaren arauak –bai nazionalak, bai nazioartekoak–, diziplina anitzeko zein bere espezialitateko argitalpenen komunikabideena. Komunikazio zientifikoaren hitzezko azalpenerako oinarritzeko arauak ezagutzen ditu. Lan zientifikoa hedatzeko hitzezko eta idatzizko komunikaziorako gaitasuna duela erakusten du. Prestakuntzan egindako ikerketa-proiektua hitzez azaltzen eta defendatzen du jendaurrean. 	X	X X X X
Ikerketa ofizialaren (I+G+B) testuinguruan moldatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> Europar egindako ikerketa, garapen eta berrikuntzako (I+G+B) plan eta programa transnazionalak, nazionalak eta autonomikoak ezagutzen ditu. Baditu ikerketaren (I+G+B) esparru ofizialean jarduteko gaitasunak. 		X X
Ezagutza berriak garatzen, eta osasuneko beste profesional batzuk prestatzen laguntzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko elementuak ezagutzen ditu, eta emaitza-helburuetara egokitutako hezkuntza-metodoak erabiltzen ditu. Osasun mentalean espezializatutako erizain egoiliar eta bestelako profesionalentzako prestakuntzan parte hartzen du. 	X	X X

GAITASUNAK	Kudeaketa klinikoa	E1	E2
Kudeaketa klinikoko prozesuetan buru izateko, koordinatzeko eta gidatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Politika sanitario eta sozialaren lerroak ezagutzen ditu, baita Osasun Mentaleko Estrategia Nazionala eta osasun mentalaren eta adikzioen alorrean indarrean diren gida-planak ere, bai osasun-sistema nazionalekoak, bai erkidegokoak. • Plangintza, administrazio eta antolamendu sanitarioaren oinarriak ezagutzen ditu, baita kudeaketa klinikoko prozesuen lidergoan, koordinazioan eta zuzendaritzan aritzeko oinarriak ere. • Osasun mentaleko baliabideen, zerbitzu-sareen eta koordinazio asistentzialeko programen egitura eta funtzioak ezagutzen ditu. • Baditu osasun mentalaren eta adikzioen alorreko erizaintza-zerbitzuak eta kudeaketa klinikoko prozesuak kudeatzeko, zuzentzeko eta koordinatzeko gaitasunak. • Beste profesional batzuei orientazioa ematen die, osasun mentaleko baliabideei eta dagokion erakunde sanitarioak ematen dituen zerbitzuen eta prestazioen eskaintzari buruz. 	X	X
Praktika profesionalari buruzko informazio-sistemak kudeatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Lan egiten duen erakunde sanitarioak dituen kudeaketa klinikoko prozesuak, informazioko eta kalitate-kontrolerako sistemak eta emaitzen analisia eta ebaluazioa ezagutzen ditu. • Osasun mentaleko baliabideen, zerbitzu-sareen eta koordinazio-programen egitura eta funtzioak eta kudeaketa klinikorako ezarritako oinarriak kontuak hartuta jokatzeko du. • Bere praktika profesionalari buruzko informazio-sistemak kudeatzen ditu. 	X	X
Zaintzen kalitatea etengabe hobetzeko ekintzak kudeatzeko, zuzentzeko eta koordinatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Kalitate asistentzialaren oinarriko printzipio eta erremintak ezagutzen ditu. • Lan egiten duen erakunde sanitarioak dituen kalitate-bermerako eta -kontrolerako sistemetan eta emaitzen analisi eta ebaluazioan parte hartzen du. • Zaintzen kalitatearen etengabeko hobekuntza sustatzen du. • Erizaintzako jokabide-protokoloak sortzen eta erabiltzen ditu. • Zentzuz, efizientzia-irizpideei jarraikiz, ekitatean eta justizian oinarrituta eta kostuaren eta aurreikus daitekeen onuraren arteko oreka bilatuz erabiltzen ditu eskuragarri dituen baliabideak. • Etengabe ikasteko eta hobetzeko jarrera du. • Etengabe hobetzeko jarduerak egiten ditu, emaitzen ebaluazioari dagokionez. 	X	X
Lantaldeak eta diziplina barruko eta diziplinarteko taldeetako lana kudeatzeko, zuzentzeko eta koordinatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Talde-lanaren oinarri teorikoak eta taldeak zuzentzeko eta dinamizatzekeko lidergo-estiloak eta estrategiak ezagutzen ditu. • Talde-lanerako metodologia aplikatzen du. • Diziplina barruko eta diziplinarteko talde-lanean laguntzen du. 	X	X

	<ul style="list-style-type: none"> • Baditu diziplina anitzeko lantaldeak eta erizaintzako lantalde espezifikoak kudeatzeko, zuzentzeko eta koordinatzeko gaitasunak. • Bere lantaldearen eta harremana duen beste talde batzuen funtzionamendua hobetzeko ekarpen pertsonalak egiteko prest dago. 	X	X
Osasun mentalaren eta adikzioen alorreko jarduera asistentziala eta erizaintza-zerbitzuak kudeatzeko, zuzentzeko eta koordinatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Bere eginkizunetan, unitatearen eta lan-zentroaren helburuekin identifikatzen eta konprometitzen da, baita haren antolamendurekin eta etika- eta lege-esparruarekin ere. • Baditu erizaintzako jokabide-gidak garatzeko gaitasunak. 	X	X
Aditu gisa aholku emateko eta osasun mentalaren esparruan estrategiak erabakitze gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Badu ideiak ekartzeko eta aditu gisa aholku emateko jarrera. • Osasun mentalaren esparruko estrategien eta antolamendu-aldaketen inguruan erabakiak hartzeko lanean ekarpenak egiteko prest dago. 		X

Osasun mentaleko erizaintza-alorreko prestakuntza espezifikoarekin lotuak

GAITASUNAK	Osasun mentaleko erizaintza-alorreko zainketen oinarri psikosozialak.	E1	E2
Giza portaeraren oinarri psikosozialak erizaintzako zainketei buruzko planetan aplikatzeko gaitasuna, aurre egiteko eta egokitze mekanismo nagusiak identifikatuta.	<ul style="list-style-type: none"> • Giza portaeraren oinarri psikosozialak ezagutzen eta aplikatzen ditu. • Pertsonak aldaketa- eta/edo krisi-egoeretan aurre egiteko eta egokitze baliatu ohi dituzten mekanismo nagusiak identifikatzen ditu. • Artatzen dituen pertsonen ezaugarri soziokulturalak kontuan hartzen ditu osasun mentaleko erizaintza-alorreko zainketei buruzko planak egiteko. • Aldaketa-egoerei aurre egiteko eta/edo horietara egokitze zailtasunak dituzten pertsonen edo taldeei laguntzeko jarduera profesionalak egiten ditu. 	X	X
Giza komunikazioaren printzipio teorikoak, osasun mentaleko erizaintzako zainketen esparruan baliatu beharrekoak, praktikan aplikatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Giza komunikazioaren eta motibazioaren teoria nagusiak ezagutzen ditu. • Gizakiaren erantzunetan sentimenduek eta emozioek duten garrantzia identifikatzen du. • Jarduera profesionalean komunikazio eraginkorra lortzeko baliatu beharreko printzipioak aplikatzen ditu. • Motibazio-estrategiak txertatzen ditu zainketa-planetan. 	X	X
Taldeko esku-hartzeetan taldeko esku-hartzeen oinarri teoriko eta teknikoak aplikatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko esku-hartzeen oinarri teoriko eta tekniko nagusiak ezagutzen eta aplikatzen ditu. • Zenbait talde-egoeretan parte-hartzaileek duten rola edo lekua identifikatzen du. • Taldeko esku-hartzeak diseinatzen eta egiten ditu, modu autonomoan eta/edo beste profesional batzuekin lankidetzan egiteko. 		X
Artatu beharreko komunitatearen ezaugarriak, baliabideak eta dinamismoak deskribatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Artatu beharreko komunitatearen ezaugarriak, baliabideak (baliabide komunitarioak, elkarteak, autolaguntzako taldeak...) eta funtzionamendua ezagutzen ditu. • Biztanleriaren osasun mentalaren esparruan autolaguntzako elkarte-mugimenduek eta baliabide soziokomunitarioek duten garrantzia identifikatzen du. 	X	X

	<ul style="list-style-type: none"> • Gogoeta- eta sormen-jarrera du, artatzen duen komunitatea analizatu, eta hura hobetzeko/aldatzeko proposamenak eginez. • Komunitatearen baliabideak erabiltzeko orientazio-proposamenak egiten ditu, gizabanakoentzat, familientzat edo taldeentzat. • Komunikabideetan agertzen diren osasun mentalari buruzko edukiak kritikoki aztertzen ditu. 	X	X
			X
			X

GAITASUNAK	Erizaintza psikosoziala	E1	E2
Osasun mentala sustatzeko esku-hartzeak, ongizate subjektiboari, hazkunde pertsonalari eta bizimodu mentalki osasungarriari eusten eta/edo horiek hobetzen laguntzen dutenak, egiteko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun mental positiboaren kontzeptua eta konstruktua horretatik gertuen dauden faktoreak deskribatzen ditu: osasun mentalaren, ongizate subjektiboaren eta bizikalitatearen sustapena eta prebentzioa, optimismoa, zoriona eta erresilientzia. • Osasun mentalaren hobekuntzan eragina duten erizaintzako zainketen osagai psikosozialak identifikatzen ditu. • Osasun mental positiboko esku-hartzeak, ongizate subjektiboari, hazkunde pertsonalari eta/edo bizimodu mentalki osasungarriari eusten eta/edo horiek hobetzen laguntzen dutenak, diseinatzen ditu. 	X	X
Jarrera terapeutikoak garatzea eta indartzea ahalbidetuko dion autoezagutza-maila batean sakontzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Autoezagutza eta jarrera terapeutikoak garatzeko prest dago. • Autokritika egiten du eta estrategia pertsonalak mobilizatzen ditu harreman-gaitasunak hobetzeko. • Pazienteekiko harreman terapeutikoan planteatutako daitezkeen zailtasunen analisi kritikoa eskatzen dio tutoreari eta/edo analisi horretan parte hartzen du berarekin. • Bere ikaskuntza kudeatzeko ekimena du, eta horretarako prest dago. 	X	X
Pertsonen arteko harremanak maneiatzeko gaitasuna, erreferente gisa jokaturia.	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsonen arteko harremanen osagaiak behar bezala identifikatzen eta maneiatzen ditu. • Kontsulta- eta/edo kontsultarteko-eskarietan erreferente gisa jokatu du. 	X	X
Hazkunde pertsonalerako, ingurunera egokitzeko eta autonomia hobetzeko portaerak ikasteko prozesuan pertsonen lagunduko dieten harreman terapeutikoak ezartzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Harreman terapeutiko baten elementuak, gaitasunak eta jarrerak identifikatzen ditu. • Transferentzia- eta kontratransferentzia-fenomenoak detektatzen ditu. • Harreman terapeutikoak ezartzen ditu. • Pertsonen laguntzen die hazkunde pertsonala lortzeko eta ingurunera egokitzeko prozesuan. • Pertsonen erakutsi egiten die autonomia hobetzeko ohitura berriak ikasteko prozesuan. 	X	X
Familiaren premiak detektatzeko gaitasuna, eta behar bezala esku hartzea, laguntza-talde gisa dituen aukerak optimizatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Familiaren premiak detektatzen ditu. • Familia bakoitzaren dinamika partikularrak errespetatzen ditu. • Zainketei buruzko planak diseinatzen eta gauzatzen ditu, familiak laguntza-talde gisa duen gaitasuna optimizatzeko. • Zainketei buruzko planak diseinatzen eta gauzatzen ditu, familiei aholkularitza eta laguntza emateko. 	X	X
Osasun mentaleko erizaintzako zainketei	<ul style="list-style-type: none"> • Aldaketak detektatzeari eta laguntza emateari dagokionez, jarrera harkorra eta sentibera du. 	X	X

buruzko planak, aldaketa-eta/edo krisi-egoeretara egokituak, garatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Aldaketa eta krisi-egoera potentzialak detektatzen ditu. • Erizaintzako esku-hartzeak diseinatzen eta aplikatzen ditu, pertsona, familia edo taldearen aldaketa- eta/edo krisi-egoeretarako. 	X	X
Pazienteei emandako arretaren azken emaitza izandako elkarreraginen ondorioa dela aitortzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Lantaldearen dinamikaren aldagaien artean zereginak benetan egitea errazten dutenak eta oztopatzen dutenak identifikatzen ditu. • Pazienteei emandako arretaren azken emaitza haien eta diziplinarteko taldeko kideen artean izandako elkarreraginen eta erizaintza-taldeko kideen artean izandakoen ondorioa dela kontuan hartuz jokatzeko du. 	X	X

GAITASUNAK	Osasun mentalaren oinarri kontzeptualak eta metodologikoak	E1	E2
Osasun mentalaren historia eta teoria eta eredu psikologikoak eta psikiatrikoak ezagutzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Asistentzia psikiatrikoaren historia ez ezik, egungo teoria eta eredu psikologikoak eta psikiatrikoak ere ezagutzen ditu. • Osasun mentalaren historiaren funtsezko elementuen eta horiek zainketan duten eraginaren analisi kritikoa egiten du. • Badaki identifikatzen zer ekarpen espezifiko egiten dituzten teoria eta eredu kontzeptualek nahasmendu mentalak ulertzeko orduan. 	X	X
Osasun mentalaren epidemiologia deskribatzeko gaitasuna, biztanleriaren premiak, babes-faktoreak eta arrisku-faktoreak identifikatuta.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun mentalaren alorrean biztanleriak dituen premiak, babes-faktoreak eta arrisku-faktoreak identifikatzen ditu. • Epidemiologia psikiatrikoaren eta osasun mentalaren epidemiologiaren funtsezko adierazleak deskribatzen ditu. • Esku hartzeko proposamenak egiten ditu, zenbait adierazle epidemiologikotan eragiteko. • Esku hartzeko estrategia espezifikoak proposatzen ditu, gaixotasun mentalak dituzten pertsonen pairatutako estigmaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko. 	X	X
Osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planetan psikopatologiako eta klinika psikiatrikoko ezagutzak txertatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Asaldura psikopatologiko ohikoenak eta klinika psikiatrikoa sakonki ezagutzen ditu. • Saillkapen diagnostikoak eta psikiatrikoak ezagutzen eta aplikatzen ditu. • Saillkapen horiek osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planen garapenean egin dituzten ekarpenak identifikatzen ditu. • Psikopatologiako eta klinika psikiatrikoko ezagutzak erabiltzen ditu osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planak egiteko. 	X	X
Osasun mentalean esku hartzeko terapien modalitateak erabiltzeko gaitasuna, horien oinarri diren kontzeptu teorikoak baliatuz.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun mentalean esku hartzeko modalitateen kontzeptu teoriko garrantzitsuenak ezagutzen eta aplikatzen ditu. • Tratamendu biologiko guztiak eta horien efektuak, horiek lotutako zainketak eta kontuan izan beharreko neurriak ezagutzen ditu eta horiek kontuan hartuz jokatzeko du. • Arreta multiprofesionalaren ondoriozko tratamendu farmakologikoak aplikatzen ditu, haien efektuei erreparatuta eta erizaintzako zainketa egokiak erabilia. 	X	X

	<ul style="list-style-type: none"> • Esku-hartze psikosoziaren modalitate guztiak diseinatzeko eta aplikatzeko lanean parte hartzen du, diziplina anitzeko eta norabide bakarreko lanaren testuinguruan. • Modalitate terapeutikoen ekarpen guztiak identifikatzen eta baliatzen ditu osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planak egiteko. • Atxikidura terapeutikoan eragina duten faktoreak ezagutzen ditu eta osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planetan esku hartzeko proposamenak egiten ditu. 	X	X
		X	X
		X	X

GAITASUNAK	Ebidentzia eta aurrerapausoak osasun mentaleko erizaintzako zainketetan	E1	E2
Erizaintzako zainketen, teoriaren eta ereduaren bilakaera historikoa ezagutzeko eta osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planetan horiek aplikatzeko gaitasuna, betiere zainztearen kontzeptu integrarean oinarrituta.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun mentaleko erizaintzako zainketen bilakaeran funtsezkoak diren etapak edo uneak ezagutzen ditu. • Osasun mentaleko erizaintzaren osagai espezifikoaren artean erizaintzako teoria eta ereduaren inplizituak direnak identifikatzen ditu. • Erizaintzako zainketen teoriaren edo ereduaren artean zainketaren premietara eta egoerara hobekien egokitzen dena hautatzen du. 	X	X
Erizaintzako nosografiak baliatzeko eta osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planetan aplikatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> • Erizaintzako nosografiak osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planetan aplikatzen ditu. • Arrazoiketa eta pentsamendu kritikoa baliatzen du hizkuntza estandarizatuak eta programa informatikoak erabiltzeko orduan zainketa-planak sortzeko eta erregistratzeko. 	X	X
Osasun mentaleko erizaintzako zainketa-planak sortzeko gaitasuna, erizaintzako arreta-prozesuko etapa bakoitzaren behar bezalako aplikazioa islatzen dutenak.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun mentaleko erizaintzako zainketa-planak sortzen ditu, erizaintzako arreta-prozesuko etapa bakoitzaren behar bezalako aplikazioa islatuz. • Informazioa kritikoki analizatzen, interpretatzen eta laburtzen du. • Osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planak aurkezten eta defendatzen ditu, dagozkion baliabideak –didaktikoak eta ikus-entzunezkoak– baliatuta. 	X	X
Osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planak sortzeko eta aplikatzeko gaitasuna, pertsonak bizi-zikloko zein etapatan dauden eta zainketak zer esparrutan jasotzen dituzten kontuan hartuta, pertsonaren premia espezifikoetan oinarrituta.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planak, bizi-zikloko etapa desberdinetan dauden gizabanako, familia edo taldeentzat, eta aniztasun soziokulturala kontuan hartzen dutenak, sortzen eta aplikatzen ditu. • Osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planak, jarduketaren eremu desberdinetako gizabanako, familia edo taldeentzat, sortzen eta aplikatzen ditu. • Osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planak, osasun-egoera zehaztetan dauden gizabanako, familia edo taldeentzat, sortzen eta aplikatzen ditu. • Erizaintza-txostenak egiten ditu pazienteari ospitaleko alta ematen zaionean, maila asistentzial guztien artean zainketak jarraituko duela bermatzeko. 	X	X
		X	X
		X	X
		X	X

<p>Osasun mentalari buruzko heziketa-jarduerak, gizabanako, familia edo talde eta beste profesional batzuentzat, planifikatzeko, egiteko eta ebaluatzeko gaitasuna.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun mental integraleko heziketa-programak gauzatzeko metodologia ezagutzen du, baita haren aplikazio nagusiak ere. • Osasun mentalari buruzko heziketa-jardueren emaitzak ebaluatzeko sistemak ezagutzen ditu. • Osasun mentalari buruzko heziketa-jarduerak, pertsona, familia, talde eta komunitateentzat, planifikatzen, egiten eta ebaluatzen ditu. • Osasun mentalari buruzko heziketa-jarduerak – osasun-alorreko profesionalentzat eta bestelako kolektiboentzat– planifikatzen, garatzen eta ebaluatzen ditu. 	<p>X</p> <p>X</p> <p>X</p>	<p>X</p> <p>X</p> <p>X</p> <p>X</p>
<p>Osasun mentalean espezializatutako loturako eta kontsultarteko erizain gisa jarduteko gaitasuna.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun mentalean espezializatutako loturako eta kontsultarteko erizain gisa jarduten du osasun-sistemako maila guztietan. 		<p>X</p>
<p>Osasun mentaleko Erizaintzako Arreta Planak, arreta espezifikorako programen esparruan txertatuak, egiteko eta aplikatzeko gaitasuna, osasun mentalaren sustapen, prebentzio eta errehabilitazioaren testuinguruan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun mentaleko erizaintzako zainketei buruzko planak, arreta espezifikorako programen esparruan txertatuak, sortzen eta aplikatzen ditu. • Komunitateari zuzenduta dauden eta biztanleriaren osasuna hobetzeko helburua duten diziplina anitzeko programen plangintzan eta garapenean parte hartzen du, esku-hartze maila guztietan. 	<p>X</p> <p>X</p>	<p>X</p> <p>X</p>
<p>Osasun mentalaren zainketaekin lotutako farmakoak eta bestelako produktu sanitario batzuk erabiltzeari, agintzeari eta baimentzeari buruz indarrean den araudia aplikatzeko gaitasuna.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun mentaleko erizaintzako zainketaekin lotutako farmakoak eta bestelako produktu sanitario batzuk erabiltzeari, agintzeari eta baimentzeari buruz indarrean den araudia ezagutzen du eta horren arabera jokatzeko du. 	<p>X</p>	<p>X</p>

PRESTAKUNTZA GAINBEGIRATZEA ETA EBALUATZEA

Egoitza-aldian gaitasun profesionalak eskuratzeko prozesuaren jarraipena eta kalifikazioa ebaluazio formatiboaren bidez egingo da, urtean eta amaieran, honako hauetan xedatutakoaren arabera:

- 183/2008 Errege Dekretua, otsailaren 8koa, osasun-zientzietako espezialitateak zehaztu eta sailkatzen dituen eta osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren alderdi jakin batzuk garatzen dituena.
- Ebazpena, 2018ko uztailaren 3koa, Lanbide Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiarena, 2018ko martxoaren 21eko Ebazpenaren hutsak zuzentzen dituena, Prestakuntzan ari diren espezialisten ebaluazioen egiaztatgiriek izan behar dituzten oinarritzko jarraibideak onartzen dituena.

Gomendatutako bibliografia

- Asociación Americana de Psiquiatría. Manual diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales. DSM 5. Madrid: Editorial Médica Panamericana; 2014.
- Belloch A, Sandín B, Ramos F. Manual de Psicopatología. Tomo I y II. 2ª ed. Revisada. Madrid: McGraw-Hill/Interamericana; 2009.
- Caballo Manrique VE. Manual de psicopatología y trastornos psicológicos. Madrid: Editorial Pirámide; 2014.
- Cibanal L. Técnicas de Comunicación y Relación de Ayuda en Ciencias de la Salud. 2ª Ed. Madrid: Elsevier; 2014.
- CIE-10 Décima revisión de la Clasificación Internacional de las Enfermedades: Trastornos mentales y del comportamiento. Descripciones clínicas y pautas para el diagnóstico. Madrid: Meditor; 1992.
- Coderch J. Psiquiatría Dinámica. Barcelona: Herder; 2011.
- Delgado Losada ML. Fundamentos de Psicología. Para ciencias sociales y de la salud. Madrid: Editorial Médica Panamericana; 2015.
- Elizagarate E, Sanchez P, Ezcurra J. La esquizofrenia refractaria. Vitoria: Ikusager Ediciones SP; 2011.
- Fornés Vives J, Carballal Balsa MC. Enfermería de salud mental y psiquiátrica. Valoración y Cuidados. 2ª ed. Madrid: Editorial Médica Panamericana; 2012.
- Fornés Vives J, Gómez Salgado J. Evolución histórica y modelos conceptuales en salud mental y psiquiátrica: Enfermería de salud mental y psiquiátrica I. Madrid: Enfo Ediciones. Fundación para el desarrollo de la Enfermería (FUDEN); 2007.
- Fornés Vives J, Gómez Salgado J. Psicopatología, diagnosis y terapéutica psiquiátrica: Enfermería de salud mental y psiquiátrica I. Madrid: Enfo Ediciones. Fundación para el desarrollo de la Enfermería (FUDEN); 2007.
- Fornés Vives J, Gómez Salgado J. Evolución de los cuidados enfermeros en salud mental: Enfermería de salud mental y psiquiátrica II. Madrid: Enfo Ediciones. Fundación para el desarrollo de la Enfermería (FUDEN); 2008.

- Fornés Vives J, Gómez Salgado J. Principales problemas de salud mental e intervención enfermera: Enfermería de salud mental y psiquiátrica II. Madrid: Enfo Ediciones. Fundación para el desarrollo de la Enfermería (FUDEN); 2008.
- Fornés Vives J, Gómez Salgado J. Factores mediadores en la salud mental. Enfermería Psicosocial I. Madrid: Enfo Ediciones. Fundación para el desarrollo de la Enfermería (FUDEN); 2008.
- Fornés Vives J, Gómez Salgado J. Recursos y programas para la salud mental. Enfermería Psicosocial II. Madrid: Enfo Ediciones. Fundación para el desarrollo de la Enfermería (FUDEN); 2008.
- Fornés Vives J, Gómez Salgado J. Educación para la salud mental Enfermería de salud mental. Madrid: Enfo Ediciones. Fundación para el desarrollo de la Enfermería (FUDEN); 2008.
- Fornés Vives J, Pascual Rodríguez M. Competencias transversales en enfermería de salud mental: legislación, investigación, gestión y docencia. Madrid: Enfo Ediciones. Fundación para el desarrollo de la Enfermería (FUDEN); 2015.
- Galiana JL. Enfermería psiquiátrica. Barcelona: Elsevier; 2016.
- Johnson BS. Enfermería de Salud Mental y Psiquiátrica. Biblioteca Enfermería profesional. Tomos 15 y 16. 4ª Edición. Madrid: Mc-Graw-Hill. Interamericana; 2000.
- Jordan Halter J. Varicolis. Manual de planes de cuidados en enfermería psiquiátrica. Un enfoque multiprofesional. Barcelona: Elsevier; 2019.
- Megías-Lizancos F, Serrano Parra MD. Manual de la Enfermera Residente de Salud Mental. Madrid: AEESME; 2018.
- Megías-Lizancos F, Castro Molina FJ. Enfermería en psiquiatría y salud mental. 2ª Ed Madrid: Difusión Avances de Enfermería (DAE, S.L.); 2009.
- Moorhead S, Swanson E, Johnson M. Clasificación de los resultados de enfermería (NOC). Medición de resultados en salud. 7ª Edición. Barcelona: Elsevier; 2023.
- Myers DG. Psicología. 7ª ed. Madrid: Panamericana; 2005.
- NANDA-I. Diagnósticos enfermeros: Definiciones y clasificación 2024-2026. 13ª Edición. Barcelona: Elsevier; 2024.

- Nieto Munuera J, Abad Mateo MA, Esteban Albert M, Tejerina Arreal M. Psicología para ciencias de la salud: Estudio del comportamiento humano ante la enfermedad. Madrid: McGraw-Hill Interamericana; 2004.
- Novel G, Lluch MT, Miguel MD. Enfermería Psicosocial y Salud Mental. Barcelona: Elsevier Masson; 2005.
- Olivares J, Macia D, Rosa AI, Olivares-Olivares PJ. Intervención psicológica. Estrategias, técnicas y tratamientos. Madrid: Ediciones Pirámide; 2013.
- Ortiz de Zárate A, Alonso I, Ubis A, Ruiz de Azúa MA. Guías de Cuidados de Enfermería en Salud Mental.
 - Vol 1. Patología Dual. Barcelona: Elsevier-Masson; 2009.
 - Vol 2. T. Mental Grave de larga evolución. Barcelona: Elsevier-Masson; 2010.
 - Vol 3. Psicogeriatría. Barcelona: Elsevier-Masson; 2010.
 - Vol 4. Trastornos Psicóticos. Barcelona: Elsevier-Masson; 2011.
 - Vol 5. Trastornos del Estado de Animo. Barcelona: Elsevier-Masson; 2011.
 - Vol 6. Adicciones. Barcelona: Elsevier-Masson; 2011.
- Ramos Montes J. Ética y salud mental. Barcelona: Heder Editorial SL; 2018.
- Díaz Méndez D, Latorre Postigo JM. Psicología Médica. Barcelona: Elsevier; 2014.
- Rigol Cuadra A, Ugalde Apalategui M. Enfermería de salud mental y psiquiátrica. 2ª Edición. Barcelona: Elsevier Masson; 2006.
- Ruiz Moral R. Comunicación clínica. Principios y habilidades para la práctica. Madrid: Editorial Médica Panamericana; 2014.
- Rubio Valladolid, G. Fundamentos de psiquiatría. Bases científicas para el manejo clínico. Madrid: Editorial Médica Panamericana; 2014.
- Sadock BJ, Sadock VA, Ruiz P. Kaplan & Sadock. Sinopsis de psiquiatría. Editorial Wolters Kluwer; 2015.
- Shives LR. Enfermería psiquiátrica y de salud mental: conceptos básicos. 6ª Ed. Madrid: McGRAW-HILL Interamericana; 2007.
- Tazón Ansola P, Aseginolaza Chopitea L, García-Campayo J. Ciencias Psicosociales. Madrid: Elsevier; 2004.

- Vallejo Ruiloba J. Introducción a la psicopatología y la psiquiatría. 8ª Ed. Barcelona: Elsevier Masson; 2015.
- Wagner CM, Butcher HK, Clarke M. Clasificación de intervenciones de enfermería (NIC). 8ª Edición. Barcelona: Elsevier; 2023.

OSASUN-ESTRATEGIAK

- Suarez Alonso AG. Estrategia en Salud Mental del Sistema Nacional de Salud 2022-2026. Madrid: Osasun Ministerioa, 2022.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategia 2023-2028. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila; 2023
- Osakidetza. Osakidetzaren Plan Estrategikoa 2023-2025. Vitoria-Gasteiz: Osakidetza, 2023.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Euskadiko Osasun Plana 2030. Bilbo: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila; 2023.
- Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza eta Osakidetza. Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia. Vitoria-Gasteiz: Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza eta Osakidetza; 2019.
- Osakidetza. Euskadiko genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean osasun-arloko profesionalentzako jarduera-gida. Gasteiz: Osakidetza; 2019.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Genero-indarkeriaren biktima diren seme-alaben aurrean jarduteko osasun-arloko profesionalentzako gida. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila; 2024.
- Osakidetza. Osasun-langileentzako jarduera-gida 14 urtetik gorako emakumeen aurkako sexu-indarkeriazko kasuetarako. Gasteiz; 2024.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Euskadiko arreta soziosanitarioko estrategia 2021-2024. Bilbo: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila; 2021.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Osasun-arloko ikerketa- eta berrikuntza-estrategia. Bilbo: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila; 2022.
- Osakidetza. Osasuna ikuspegi komunitario batetik lantzeko estrategia. Gasteiz: Osakidetza; 2023.

- Osakidetza. Osakidetzako balio-estrategia. Gasteiz: Osakidetza; 2023.
- Osakidetza. Pazientearen Segurtasun Estrategia 2030. Gasteiz: Osakidetza; 2023.
- Osakidetza. Humanizazio-eredua. Gasteiz; 2023.
- Osakidetza. Berdintasun-plana 2025-2028. Gasteiz: Osakidetza; 2025.
- Osakidetza. Helduen osasun-arretan euspena prebenitu eta murrizteko gomendioen gida. Osakidetza; 2024.
- Arabako Osasun Mentaleko Sarea. 2023-2025 Plan Estrategikoa.
- Arabako ESI. 2023-2025 Plan Estrategikoa.
- 1/2022 Jarraibidea, urtarrilaren 19koa, euste-baliabide mekaniko edo farmakologikoak unitate psikiatrikoetan edo osasun mentaleko unitateetan eta adineko pertsonen eta/edo desgaitasuna duten pertsonen zentro soziosanitarioetan erabiltzeari buruzkoa.
- 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena.
- Osasun Sistema Nazionalerako Kalitate Plana. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa; 2010.

ALDIZKARI ETA HELBIDE ELEKTRONIKO INTERESGARRIAK

Nursing Research

Advanced Nursing

Enfermería Clínica

Revista Enfermería y Salud mental

Revista Española de Enfermería de salud mental

Clinical Key (artikulu, liburu, irudi.. bilatzailea).

Psikiatratiako gida klinikoak: <http://www.fisterra.com/guias-clinicas/psiquiatria/>

<http://www.excelenciaclinica.net>

<http://www.psiquiatria.com>

<http://psicofarmacologia.info>

<http://www.journalofadvancednursing.com/>

http://www.doyma.es/revistas/ctl_servlet?_f=7032&revistaid=35

<http://www.index-f.com>

<http://www.index-f.com/presencia/n10/sumario.php>

<http://www.enfermeria21.com/index.php>

<http://personal.telefonica.terra.es/web/enfermeriaavanzada/likns.htm>

<http://www.psiconet.com/>

<http://www.psicologia-online.com/>

BAAE prestakuntzari buruz indarrean dagoen legeria

44/2003 LEGEA, AZAROAREN 21EKOA, LANBIDE SANITARIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKOA.

450/2005 ERREGE DEKRETUA, APIRILAREN 22KOA, ERIZAINZAKO ESPEZIALITATEEI BURUZKOA.

1146/2006 ERREGE DEKRETUA, URRIAREN 6KOA, OSASUN-ZIENTZIETAKO ESPEZIALISTAK PRESTATZEKO EGOILIARREN LAN-HARREMAN BEREZIA ARAUTZEN DUENA.

1393/2007 ERREGE DEKRETUA, URRIAREN 29KOA, UNIBERTSITATE-IKASKETA OFIZIALEN ANTOLAKETA EZARTZEN DUENA.

183/2008 ERREGE DEKRETUA, OTSAILAREN 8KOA, OSASUN-ZIENTZIETAKO ESPEZIALITATEAK ZEHAZTEN ETA SAILKATZEN DITUENA ETA OSASUN ESPEZIALIZATUKO HEZIKETA-SISTEMAREN ZENBAIT ALOR GARATZEN DITUENA.

SCO/581/2008 AGINDUA, OTSAILAREN 22KOA, OSASUN-SISTEMA NAZIONALAREN GIZA BALIABIDEETAKO BATZORDEAREN AKORDIOA ARGITARA EMATEN DUENA, HAIN ZUZEN, IRAKASKUNTZA-BATZORDEEN OSAERARI ETA EGINKIZUNEI BURUZKO IRIZPIDE OROKORRAK EZARTZEN DITUENA, IKASKETABURUARI, PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUARI ETA TUTOREAREN IZENDAPENARI DAGOKIENEZ.

CIN/2134/2008 AGINDUA, UZTAILAREN 3KOA, ERIZAIN-LANETAN JARDUTEKO GAITASUNA EMATEN DUTEN UNIBERTSITATE-TITULU OFIZIALAK EGIAZTATZEKO IRIZPIDEAK EZARTZEN DITUENA.

SPI/1356/2011 AGINDUA, MAIATZAREN 11KOA, OSASUN MENTALEKO ERIZAINZAREN ESPEZIALITATEAREN PRESTAKUNTZA-PROGRAMA ONARTZEN ETA ARGITARATZEN DUENA.

34/2012 DEKRETUA, MARTXOAREN 6KOA, EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO OSASUN-PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUKO SISTEMAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKOA.

SSI/81/2017 AGINDUA, URTARRILAREN 19KOA, OSASUN-SISTEMA NAZIONALEKO GIZA BALIABIDEEN BATZORDEAREN ERABAKIA ARGITARATZEN DUENA. ERABAKI HORREN BIDEZ, OSASUN-ZIENTZIETAKO IKASLEEK ETA EGOILIARREK PAZIENTEAREN INTIMITATERAKO DUTEN ESKUBIDEA ZIURTATZEKO ETA BABESTEKO OINARRIZKO JARRAIBIDEAK ZEHAZTEN DITUEN PROTOKOLOA ONARTZEN DA.

1/2017 INSTRUKZIOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, PAZIENTEEN DATU PERTSONALAK BABESTEKO ARAUBIDEA GRADUATU AURREKO PRESTAKUNTZA-PRAKTIKAK EGITEN DITUZTEN OSASUN-ZIENTZIETAKO IKASLE, OSASUN-ZIENTZIETAKO EGOILIAR ETA IKERTZAILEENTZAT.

EBAZPENA, 2018KO MARTXOAREN 21EKOA, ANTOLAMENDU PROFESIONALAREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, PRESTAKUNTZAN DAUDEN ESPEZIALISTEN EBALUAZIOEN EGIAZTAGIRIETAN JASO BEHARREKO JARRAIBIDEAK ONARTZEN DITUENA.

EBAZPENA, 2019KO OTSAILAREN 8KOA, PLANGINTZA, ANTOLAMENDU ETA EBALUAZIO SANITARIOKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN DAUDEN IRAKASKUNTZA-BATZORDEAK ONARTZEN DITUENA.